

uk

70. zenbakia / 2004 azaroak 7



OPARITU EUSKARAZ



- Liburuak, musika, jostailuak, informatika...
- Labetik irten berri diren produktuak
- Laster zuen postontzietan
- Eta INTERNETen ere bai:

www.Bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu_euskara.htm

ARGITARATZAILEA:



LAGUNTZAILEA:



«Oroimena arimaren perfumea da» George Sand

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Erandioko bendejerak. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Josu Etxaola. Eleizpe eskautak, Eunat Serrano.
7. LEHEN ETA ORAIN. Bizkaiko zubiaren inguruan.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Kale antzerkia. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Jean Haritschelhar. Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Intsumisoak. Pedro Zarrabeitia.
30. FOTOGRAFIA. Paellak 2004. Asier Mentxaka eta Jose Mari Martinez.

KULTURA ETA AISIA

40. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Lekeitioko zinema eta bideo bilera.
41. MUSIKA. Errabal, euskal jazzaren zigilua. Diskoen erresinak.
42. LIBURUAK. Literatura Unibertsala bilduma eta Esti Ezkerraren zutabea.
43. KOMUNIKAZIOA. Matraka, gazteentzako astekaria.
44. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
45. ELKARRIZKETA. Garbi Losada. Unai Brea.

EUSKARAZ

46. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non erosi? Kontxiren Algortako dendan.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Academia de enseñanza Algorta, 1955.
54. AITORMENAK. Gari. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Erandio, mende hasikera



26 Jean Haritschelhar

Berbetan

Euskaltzandiararen zuzendaritzan ia lau hamarkada egon da baigorriak hau. 81 urte ditu eta urte amaieran agur esango dio karguari.



23 Antzerki jardunaldiak



54 Gari



30 Paella eguna



12 Aní arte eskola



45 Garbi Losada

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza..... **azaroak 15 / abenduak 13**
Algortako Erredentor eliza.....**azaroak 16**
Algortako anbulatorioa.....**azaroak 22**
Areetako anbulatorioa.....**azaroak 23 / abenduak 14**
Erromoko kultur etxea.....**azaroak 25**

Informazioa: 900 720 389 Etorri odola ematera, ez itxaron!



ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TSTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Getxoko Udalararen dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Getxoko Udalararen dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Leioako Udalen dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Leioako Udalen dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Erandioko Udalen dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Udalen dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundia



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundia




Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du




Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du




Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du




Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Leihatila

> Josu Esnaola

Katea

Behin hemen idatzi nuen lagun batek zera zioela, kasualitateak ez direla existitzen, ez behintzat sistema kapitalistan. Hala ere ezin da ukatu batzuetan gauza bitxiak gertatzen direna, eta batzuetan harri bat mugitzean inguruko harri guztiak mugitzen diren era berean, ekintza batek beste bat sortaraz dezake, eta honek beste bat eta beste bat, batzuek kasualitatea deitzen duten katea luzea osatuz.

Halako zerbait gertatu zait Alejandro Jorodowski izeneko morroiarekin. Bere liburu bat heldu zen nire eskuetara, autobiografia antzeko bat. Handik gutxira, Soriako herri galdu batera joan eta hango lagun batek esan zidan orduantxe amaitu zuela irakurtzen liburua. Bueltan, asteburuetan egunkariekin batera ateratzen dituzten gehigarri horietako batean egindako elkarrizketa bat pasatu zidaten. Lehengo batean liburutegira joan eta Moebiusekin batera ateratako komiki batzuk topatu nituen. Orain jakin dut Bilboko Arte Eder Museoan Panico Zinearen gaineko zikloa ematen hasi direla, eta bertan Jorodowskiren hainbat film emango dituztela: Fando y Lis, El Topo, La montaña Sagrada, Santa Sangre eta The Rainbow thief.

Bizitzan askotan gertatzen zaizkigu horrelakoak, aldaketa txiki bat egin, hitz bat esan, eta horrek beste aldaketa bat dakar, beste hitz bat, eta horrek beste bat, eta beste bat eta horrela bizitza aldatu egiten zaigu, bestelako errealitate bat sortuz. Beraz, bizi dugun munduarekin, gizartearekin, egoerarekin konforme ez bagaude, saia gaitzen hobetzen, has gaitzen aldaketa txikiak egiten, horrek katea osoa jarri baitezake abian. Azken batean argi dagoena zera da, mugitzen ez dena ez doala inora, aldaketarik egin ezean denak berdin jarraituko duela. Erabakia norberarena da, zeuk ikusi. 4

IRITZIA

Getxoko Eleizpe Eskaut Taldea desagertu da eta 33 urteko ibilbide luzeari amaiera eman dio. Bertako begirale batek gogoeta hau helarazi digu.

Agur, Eleizpe

Orain dela 33 urte, Aita Txominen ekimenez Eleizpe Eskaut Taldea sortu zen Getxoko Andra Mari elizan. Harrezkero denbora luzea igaro da eta gizartea bera ere oso bestelakoa da. Lehen, esaterako, Andra Mari elizaren atze aldean zelai berdeak geneuzkan jolasteko, orain ostera, etxeek okupatu dute lursail preziatu hori eta jolasteko beste leku batzuk bilatu behar izan ditugu. Bestalde, play stationak eta beste joku berriak asko hedatu dira gurean eta horregatik gure lan metodologia garai berrietara moldatu behar izan dugu. Ez da erraza izan taldeak bere filosofia aro berrietara etengabe egokitzen saiatzea.

Eskaut talde baten filosofiaren atal bat honetan datza: natura maitatu, jolasaren bitartez hezi; esperientziak sortzen duen heziketa barneratu ahal izatea eta hortik hazi, hazi, hazi... Guk egin dugun lana ez dugu inoiz ere kobratu eta hau guztia gure denbora librean egin dugu. Auzoari beste ekarpen batzuk ere egin dizkiogu: mendi irteerak, San Isidro jaien antolaketa, etab.


Betidanik Andra Mari elizari lotuta egon da Eleizpe, lehenengo urteetan gehiago, besteetan gutxiago. Azken urteotan begiraleak izan

garenok hurbilketa handiagoa egin dugu. Nahiz eta taldea elizaren parte izan, ez da beti horrela sentitu. Esan behar da, nolabait, Eleizpekoak elizaren ardi beltza izan direla, euren kabuz egin izan dituztelako ekintzak. Egia esan beharra dago: taldea elizaren parte bada, normalena litzateke elkarrekin lan egitea. Baina ez da horrela gertatu eta, akaso, errua alde biena izan da. Hortaz, esan legez, azken urteotan eta begiraleen belaunaldi berriagaz batera, taldea elizari gehiago hurbildu bazaio ere, elizaren aldetik ez da inoiz hori igarri.

«Auzoari ekarpen handiak egin dizkiogu: mendi irteerak, jaien antolaketa...»

Eleizpeko begireleon artean fededunak, ez-fededunak eta geure burua agnostikotzat geneukanok geunden. Beraz, nahiz eta taldea kristaua izan, Jesusengan sisnisten ez zutenak ere bazeuden. Hau argitu eta gero, begiraleok egiaren alde apostu bat egin dugula azpimarratu nahi dugu. Urte askoan egon den hipokresiari amaiera eman nahi izan diogu eta honen ondorioz, elizak gure kanporaketaz ordaindu digu zintzotasuna. Hau al da irtenbidea? Ezezkoan gaude. 4

Eunate Serrano (Eleizpe eskaut taldeko begirale ohia)



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / AREETA 1930-2004

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Irudiak eta manipulazioa: Asier Mentxaka



Argazkiotan, erakusketan ikusi daitezkeen hainbat gauza. Behean ezker aldean, Sabino Arana Fundazioko ordezkaria, Iñaki Zarraoa Getxoko alkatea eta Joseba Agirre lehendakariaren semea erakusketaren aurkezpen egunean



ez galdu > Agirre lehendakariaren gaineko erakusketa Algortan

Hilaren 17 arte Algortako Torrene kaleko 3. zenbakian (lehengo BBKren sukurtsalean) ikus daiteke Agirre lehendakariaren gaineko erakusketa hunkigarria. Jose Antonio Agirre, hasieran Getxoko alkate izan zena eta gero lehendakari, gizon paregabea izan zen eta honetan historiolarik guztiak bat datoz. Franco eta naziak salbu ez zitzaion etsairik ezagutu. Bada, bere bizitzaz eta ideien gaineko erakusketa eder honek bera hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen digu bere herrikide guztioi. Bertan, garai hura ulertzeko hainbat argibide, Agirre beraren hainbat objektu (bere egunkaria, luma, txiskeroa...), agiri, eta abarrez gozatuko du ikusleak. Azkenik, erakusketa hau gal ez dezazun, hauxe duzu ordutegia: astegunetan, 10:00-13:00 eta 17:00-21:00; zapatuetan, 11:00-21:00. ^m



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

arrastoa > yoga ikastaroa euskaraz



Argazkian, yoga ikastaroa euskaraz ematen duen taldea. Harremanetarako: 94 491 43 57

San Nikolas ikastolaraino hurreratu gara, astelehena da, gaueko 20:00ak. Isiltasuna da nagusi, lasaitasuna arnastu daiteke. Atea zabaltzearen hotsak trumoi baten dunbotsa dirudi (eskerrak ez direla konturatu). Irakasleak euskaraz dihardu. Hasier Rekondo bermeotarrak gidatzen duen taldea lasaitasun apurkaitz batean murgilduta dago. 15 bat lagun batzen dira yoga euskaraz egiteko astelehen (20:00) eta eguaztenetan (19:30). Euskara eta yogaren artean loturak badirela aitortu digu Rekondok, *“aukera pila eskaintzen ditu, adb.: burmuinari pentsagailua esaten diogu, edota jabetu moduko -konturatu eta jabe egin- berbek esparru zabala eskaintzen dute”*. Bestalde, yoga txarto sentitzen garenean bakarrik egin behar dela uste duena oker dabilela diosku Rekondok, *“ondo gaudenean hobeto egoteko balio du”*. Yogaren onurak amaigabeak dira, eta jabetu gura ezkerro, Egizu-k antolatzen duen ikastarora hurbiltzea duzu, atea zabalik daude.

kale izendegia > Laureano Jado



Erandioko Altzaga auzoan kale bat eta 2003ko martxoaz geroztik estatua bat edukitzeaz gain, Laureano Jado Ventades jaunak Bilbon dagoen plaza bati izena ematen dio. Filantropo bilbotar hau 1843an etorri zen mundura, eta 1926an ondorengo barik zendu zen arte, askotan erakutsi zuen eskuzabaltasuna. Bilboko Arte Ederretako Museoari artelan garrantzitsuak eman zizkion; izan ere, Laureano Jado museo horren sortzaileetako bat eta lehenengo presidentea dugu. Bestalde, Tartanga, Artetxueta, Goikoetxe eta Errekakoetxe baserriak Erandiori eman zizkion. Herri horretan bertan “Fundación Escuelas Jado” maristek zuzentzen duten lehen hezkuntzako ikastetxeak sortu ziren 1923an, Jadok utzitako landetxe batean. Bere ondarsuna 4 milioi pezetatan taxutu zuten, eta diru horren erdia baino gehiago osasun-erakunde bik jaso zuten: Gorlizko Itsas-Ospitalea eta Bilboko Ospitale Zibila (Basurto). ^m



GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA



MORIXA

etorri
eta
ikusi!!

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirolo moda



350 ^{m²}
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Zergen igoera, 2005ari begira

Udal-tasa eta zerga gehienak **%3,5 igoko dira** datorren urtean, hala ere badaude igoera nabriagoa jasango dutenak: **udal kiroldegikoak %10, Musika Eskolarenak %5**

Getxoko udalak datorren urteari begira udal-tasek eta zergek izango duten hazkundearen berri eman du. Udalak hartutako erabakia momentuz behin-behineko da. Zerga eta udal-tasa gehienek %3,5eko igoera izango dute, baina salbuespen batzuk badaude: hala nola, udal kiroldegiko, Musika Eskolako eta Jesusen Bihotza nagusien egoitzako tarifak.

Behin-behineko erabakia bada ere, Getxoko udalak 2005ean ordaindu beharreko udal-tasa eta zergen inguruko igoera zehaztu du. Orokorrean zerga gehienek %3,5 egingo dutela gora adierazi dute udal arduradunek. Hala ere, salbuespenak ere badaudela jakinarazi dute, hau da, zerga batzuek ehuneko portzentaia hori baino gorakada nabarmenagoa jasango dute. Salbuespen edo igoera latzagoa izango duten multzo horretan udal kiroldegiko, Jesusen Bihotza nagusien egoitzako eta Musika Eskolako tarifak daude.

Alde batetik, Andres Isasi udal Musika Eskolako ikasleek aurtan ordaintzen dutena baino %5 gehiago oradaindu beharko dute 2005ean. Beste batetik, Jesusen Bihotza Nagusien udal egoitzan laguntza jasotzeagatik eta egoteagatik erabiltzaile berriek iazkoek baino %5 gehiago oradaindu beharko dute. Halaber, nagusien egoitzan 2002a baino lehenago daudenek %20ko igoera jasango dute euren ordainketan. Azkenik, Fadurako udal kiroldegiko bazkideen tari-



Getxoko udal kiroldegiko bazkideak “gehiegizko igoeraren” kontra azaldu dira

fak %10 egingo du gora. Aurretik esan legez, 2005eko tasa eta zergei begira Getxoko udalak egin ditzazkeen igoera horiek behin-behinekoak dira, hau da oraindik ez da erabaki finkoa. Azaroko edota abenduko Gobernu Batzar Orokorrean hartuko dute azken erabakia.

«Udal kiroldegiko bazkideak, haserre, igoeraren kontra agertu dira»

Kiroldegiko bazkideak haserre 2005ean udalak kiroldegiko abonu-kuotak eta erabilpen kostuak %10 igotzeko asmoa duela jakiterakoan, Fadurako bazkide asko gutziz kontra azaldu dira eta “gehiegizkoa” dela adierazi dute. Getxoko alkate Iñaki

Zarraoaren ahotan igoerak zentzuzko arrazoia ei dauka: “*Gobelako kiroldegi berriagaz eskaintza asko handituko eta hobetuko da, eta egindako beste hobekuntza asko ere izan dina; hobekuntzok erabiltzaileek gozatuko dituzte eta zentsuzkoa da euek eta ez herri-tar guztiek apur bat gehiago oradaindu behar izatea*”. m

UDAL ZERGA BATZUK

- **Zaborrak biltzeagatik** ordaindu beharreko zerga (igoera zehaztu barik)
- **Estolden** gaineke tasa.
- **Ondasun Higiezin**en gaineke zerga
- **Ibilgailuen gaineke** zerga (autoa eta motorra edukiz gero)
- **Udal hilerriko tasa** (bertan leku bat edukiz gero). Zehazteke.

Etixeraino datorkigu zinea

Pelikulak **sarearen bitartez alokatzeko** aukera eta **etxera eroateko** zerbitzua martxan jarri dute



Alvaro UribeSalazar, Xabier Bilbao eta Ana Zayas

Filmak sarearen bidez alokatzeko aukera daukate getxoxtarrek iraila geroztik. Interneten bitartez pelikula bat alokatzeko aukeraz gain, DVDA etxera eroateko zerbitzua eskaintzen du The Big Orange Bideo enpresak. The Big Orange frankizia handia da eta bere laguntzagaz hiru gaztek zerbitzu berria jarri dute martxan Getxo aldean. Frankizi honek bideoak etxera eramateko zerbitzua eskaintzen du, eta hiru gazte getxoxtarrek eskaintza hori hobetu egin dute: bideoak internet bidez alokatzeko aukera plazartu dute. Ana Zayas, Alvaro UribeSalazar eta Xabier Bilbao dira getxoxtar ekintzaileak, eta hastapenak UribeSalazarrek azaldu ditu: “*Xabierrek eta biok orain dela urte*

batzuk Teknologia Berrien alorreko enpresa sortu genuen, aurtan The Big Orange-n eskaintza ezagutu, eta teknologia berrietan gabiltzanez, eskaintza hori alor horretara egokitzea otu zaigu, eta egitasmo honetan Ana batu zaigu”.

Filmak, bokatak... etxean jasotzeko DVD filmez gain, bideo-jokoak, bokatak, goxokiak... etxera eroateko zerbitzua dauka Algortako The Big Orange-k. Zerbitzu hori dendan bertan (Jata kalea, 3), sarearen bitartez edota telefonoz eska daiteke, eta eskatu eta 30 bat minututan etxean jasoko da. Eskaria egin ahal izateko bazkide izan behar da. m

www.orangealgorta.com / 94 406 21 00

ETXEBIZITZA IZATEKO BESTE 11 LONJA EGOKITUKO DIRA GETXON

Etxebizitza bihurtzeko helburuagaz, lonjak egokitzeke beste 11 eskari onartu ditu Getxoko udalak. Emandako 11 baimenekaz 131 dira dagoeneko azken bi urteotan etxebizitza legez erabiltzeko Getxon egokitutako lonjak. Baimena lortzeko udalak eskatzen dituen betebeharrak aurreko UK-n azaldu ziren, baina beste behin ere aipatzeko da, Jabekideen Erkidegoko arauak derrigorrez bete behar direla. Hau da, Jabekideen Erkidegoak baimena ematen ez badu, ezin izango da lonja egokitu.

ARGIZTAPEN BERRIA ARRIGUNAGAKO HONDARTZAN

Orain dela 5 urte Bizkaiko Foru Aldundiak Arrigunagako hondartza inguruko ibilbidean ipinitako argiztapen sistema aldatuko du. Argi berriak jartzeak 72.000 euroko kostua dauka, eta udal arduradunek azaldu legez aldagetaren arrazoiak hurrengoak dira: batetik, herriarrek hondartzaz gozatzeke daukaten ordu kopurua luzatzea; bestetik, hondartzako haitzek eta olatuek sortzen duten paisaia ikusgarriago egitea.

GARAPENERAKO LANKIDETZARI BESTE 28.800 EUROKO LAGUNTZA

Garapenerako Lankidetzako sentsibilizazio eta kontzientziazio egitasmoak bultzatzeko 28.800 euro bideratuko ditu Getxoko udalak. Egitasmo horien helburuak herriarren parte hartzea bultzatzea eta martxan dauden kanpainak ezagutzera ematea dira. Hauek dira dirulaguntzak jasoko dituzten GKEak: Mugarik Gabe (18.000 euro), Medicus Mundi Bizkaia (6.000), HMB Mundu bat (4.000), eta Getxo Pro-Sahara Atfal (800).



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

5.000

Gora egin du antzezlan bakoitze-ko ikusle kopuruak

Getxoko Kultur Etxeak antolatzen dituen Antzerki Jardunaldiek iazko eskaintzak baino ikusle gehiago izan dute aurten. Antolatzaileen esanetan , 5.000 ikuslek baino gehiagok gozatu du urri erdialdean eskainitako 14 antzerki-lanez (7 ikuskizun euskaraz izan ziren). Ikuskizun bakoitzera, bataz beste, 371 ikusle hurreratu dira jardunaldion XXII. edizio honetan; iaz, oster, lan bakoitze-ko 325 ikusle . Antzerki-lan denen arte-an, Kanpingags-en euskaraz zein gaztela-niazko obrak, *“Ezetz Lepoa jarri!”* eta *“¡Por los pelos!”*, izan dira ikusle gehien erakarri dituztenak. ^m

ESKOLA
LAGUNTZA

• Matematika, Fisika...

• Maila guztiak

10 urteko eskarmentua!!!

T.: 655 739 964

amestiE

obra-proiektuak

Berrikuntzak

Etxebizitzak

Eraikuntzak

Lokalak

Bulegoak

Basagoiti etorb. 56

48.991 Algora

Tel. 944 915 298

Fax 944 915 299

amesti@amesti.com

Gayané Sharluyan eta Salome Losada > Aní Arte Eskolako irakasleak “Musika guk ulertzen dugun moduan irakatsi nahi dugu”



Sharluyab eta Losadak goi-mailako musika ikasketak dituzte, eta Sharluyab doktoretza ere badauka

Gayané Sharluyab armeniarrek eta Salome Losada algortarrak Aní Arte Eskola zabaldu berri dute Algortan. Ume, zaletu eta profesionalentzako eskolak ematen dituzte, eta abeslarien zein beste musikariren piano-laguntzaile legez ere jarduten dute. Dagoeneko, Aní Arte Eskola Frankfurteko Schirm Udal Musika Eskolagaz senidetuta dago.

—Zein asmogaz sortu da Amí Arte Eskola? S.L.—Orain dela 12 urte ezagutu genuen elkar, eta ni izan nintzen Gayaneren lehenengo ikaslea hemen. Irakasle-ikasle harremanetik adiskidetasun sakona jaio zen. Biok izan gara irakasle musika eskoletan edota kontserbatorioetan, baina geure ideiak geurea zen txoko batean plazaratzeko gogo handiak geneuzkan, irakaskuntza musikala guk ulertzen dugun moduan eskaini nahi genuen.

—Zelako eskaintza dauka Aní-k? G.S.—Ikasle bakoitzari arreta eta denbora gehiago eskaintzen diogu, 6 urtetik banakako eskolak ematen ditugu. Beste eskaintzek umeak taldeetan batzen dituzte musika-hizkuntza irakasteko, eta umeek kontzeptu abstraktu horiek ulertzeko zailtasunak izaten dituzte. Guk, oster, musika-hizkuntza instrumentuagaz batera erakusten dugu, ume

bakoitzari banaka, eta ezagutza hori ulertu eta barneratzen dutenean, orduan egingo ditugu taldeak. Horrez gain, profesionali zuzendutako hobekuntza eskolak ematen ditugu; edozelako arrazoiengatik musika tresna bat jotzeko aukerarik izan ez duten nagusiei edo zaletuei zuzendutako eskaintza dugu. Gainera, abeslarien eta beste musikariren piano-jole laguntzaile legez jarduten dugu. Benetako kultura musikala eskaini gura dugu, musika klasikoaren esparruan beti ere. Eta irakaskuntzaz gain, jaialdiak eta kontzertuak antolatuko ditugu.

—Aní izen armeniarra da, ezta? G.S.—Armeniak historia tragikoa dauka. XX. mendean genozidio krudela jasan zuen, ondorioz, lur zati handi bat Turkiaren menpe dago.

«Aní Armeniako hiri eder bat zen, hortik dator eskolaren izena»

Baina Armenia banatu zuten arte, bazegoen hiri oso eder bat: Aní. Memoria, historia eta herriminaren adierazgarri da alde batetik. Bestalde, zergatik zabaldu Arte Eskola bat? Musika artea delako, eta etorkizunean musika eskola hau arteen tenplu bihurtu nahi dugulako, antzinako Greziako eskolen antzera. Ametsa da, baina gauzatuko den amets bat dela uste dugu. ^m

Badatoz euskara jardunaldiak Azaroaren 21ean hasi eta abenduaren 3a bitartean antzerkia, musika, kirola... euskaraz



Azaroaren 21ean aerobic maratokia egingo da Andra Mariko kiroldegian

VI. Euskara Jardunaldiak gauzatzeko azken prestaketa-lanak egiten dabilta antolatzaileak. Aurten, azaroaren 21etik abenduaren 3a arte hamaika ekitaldi eta ekintza iragarri dituzte. Hitzaldiak, mahainguruak, erakusketak, musika, kirola, antzerkiak etab. gure ama hizkuntzaz gozatzeko aukera eskainiko dute Euskara Jardunaldiek.

IV. Aerobic maratoiak emango die hasiera jardunaldiei azaroaren 21ean, Andra Mariko kiroldegian ipini dute hitzordua 17:00etan. Bestalde, musika alorrean Afrika, Selektak eta DJ Axularren kontzertuak aipatzekoak dira. Antzerkiari dagokionez, *Iturrian zer dago* (bertso-antzerkia) eta *El Florido pensil* ikuskizunak

aipa daitezke. Umoreak ere izango du bere lekua, besteak beste, Loli Astoreka, Asier Hormaza eta Ane Gabariaren bazarizketak egongo dira eta. Umeentzako ekitaldiak ere ez dira faltako: Betizu-ren show-a, Takolo, Pirrritx eta Porrotx pila-zoen ikuskizuna... *“Habla en cristiano”* erakusketa ere ezin aipatu barik utzi, eta horrez gain ekitaldi zerrenda luzea aurreikusten da Euskara Jardunaldien barruan.

Denon parte hartze eta laguntza
Ez luke beharko euskarak jardunaldi, aste, ezta egun jakinik ere, une eta leku guztiak beharko lituzke. Baina, zoritxarrez behar behar dituenetz, parte hartuko duzulakoan gaude. ^m

EUSKARAZ KALERATUKO DA GETXOKO TOPONIMIA BATZEN DUEN CD-A

Getxoko udalak herriko toponimia batzen duen CD bat plazaratuko du, euskaraz. Batez ere, udalerriko toponimoen gainean egindako ikerketaren emaitzak dauka oinarritzat CDak, eta horren albotik herriko 7 lekuri esanguratsuenak bisitatzeko ibilbideak ere proposatuko ditu. Nagusi zein haurrentzako interesguneak izango ditu, azken hauei zuzendututa egongo dira, batez ere, Getxoko toponimia ezagutzeko CDak batuko dituen 5 bat jolasak.

‘ORTU KRITIKOA’ ERAKUSKETA ERROMON EGONGO DA AZAROAN

Getxotik Mundura VII. topaketen barruan aurreikusten den ekitaldi esanguratsuetako bat Erromoko erakustaretoan lekutuko da. “Ortu kritikoa” lelopean 19 panelek osatutako erkusketa egongo da ikusgai hilaren 16tik 25era. Panelok bi ildo desberdinen arabera banatzen dira: alde batetik, elikagaien ekoizpenaren eta banaketaren inguruko informazioa emango dute panel batzuek, eta beste batzuek baliabide, elikagai eta oro har euren bizitzan burujabe izateko borrokan dabiltzan pertsona eta gizarte mugimenduen proposamen eta egitasmoak azalduko dituzte.

‘DESARMADA’ MUSIKA ETA OLERKI IKUSKIZUNA GOXAGAI ANTZOKIAN

Poesia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna oholtzaratuko du Galatea taldeak Getxo Antzokian, hilaren 11n. *Desarmada* ikuskizunak lurralde eta kultura desberdin askotako emakumezko poeta garaikide garrantzitsuen ahotsak azaltzen ditu, muskaren oletuetan kulunkaturik. Besteak beste, Gabriela Mistral, Concha Espina, Ana Rosetti eta Gloria Fuertesen olerki eta testuak izango dira entzugai.

cianoplan s.a.

global printers

Villa de Pientzia 6. zbk

Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87

944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

• Inprimatze eta plano kopiak.

• Kartelak kolorez eta z/b.

• Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.

• Fotokopiak kolorez eta z/b.

• Era desberdinetako koadernaketak.

• Plastifikazioak.

• Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Udondo gaztetxea

Azaroaren 18an **laugarren urtea** beteko du Udondok. Eraispenaren mehatxua egon arren, eureari tinko eusten diote gazteek

Gazteen beharrizanei irtenbidea emateko modua daukate gazte hauek Gaztetxea. Batez ere bi dira lagun hauek elkartu dituzten ideiak; *“alde batetik, biltzeko toki baten beharra, bestetik, gaur egungo egoera aldatzeko gogoia”*. Horrela, mugimendua- ren biziraupenaz galdetuta, *“egoera aldatzen ez den bitartean beharrizanek hor diraute, eta beraz, okupazioak jarraitu”* egingo duela erantzun digute. Udondo Gaztetxeko kideak dira, eta Mendi- bilekotik bota zituztenean Udondo auzo- an hustutako lantegia okupatu zuten.

Lan gogorraren ostean eraikina txukun- du eta gelak prestatu dituzte ikastaroak, bat- zarrak, kontzertuak eta, oro har, gazteen bil- gune izateko. *“Frantsez edo euskara ikastaro- ak zein informatikazkoak, txalaparta ikaste- ko jardunaldiak edo musika ikastaroak, kontzertuak ... denetarik egin dugu”*. 30 pert- sona inguruk aurrera ateratzen dute

«Frantsesa, euskara edota informatika ikas daiteke gaztetxean»

Udondo Gaztetxea. Egitura irekia eta parte hartzailea proposatzen dute eta, beraz, haren norabidea bertan daudenek zehazten dute. Halaber, atek irekiak daude parte hartu nahi duten gazteentzat. Asteartero dira batzarrak eta erabakiak kontzertuz



Argazkian, gaztetxeko kideak asanblean

hartzten dira, izan ere, *“ez dugu botaziorik egiten, kasu gehienetan kontzertuz bidez lortzen dugu ados ipintzea”*. Bestetik, beharrez- ko bitartekoak jaietako txosnan, gaztetxeko materiala saltzen (kamisetak, metxeroak...) eta kontzertuak egiten lortzen dute.

Iruñeako Euskal Jai eta Erromoko Itzu- baltzeta gaztetxeen eraistearen ondotik, kezka egon badago: *“laster edo berandu gaz- tetxea botatzera etorriko dira. Gainera, metro geltokitik hona auzoa eraberritzen hasi dira”*.

Laugarren urteurrena

Azaroaren 18an laugarren urtea beteko du Udondo Gaztetxeak. Honezkero urteu- rrena ospatzeko prestakuntza lanak hasi dituzte, eta ospatzeko arrazoirik badute; izan ere, *“inguruko gaztetxeen artean zaha- rrenetakoa da”*. Aste horretan zehar egingo den festarako txokolatada, merienda, desobedientzia zibilaren gaineko ikasta- roa, kale antzerkia eta sorpresaren bat ere iragarri dituzte Gaztetxeko kideek. m



Sakonetan entrenamenduan harrapatu genituen pilotari gazteak

Hartzak Esku Pilota Taldea >

Harrobi euskalduna

Taldea 7 eta 19 urte arteko 30 gaztek osatzen dute

Hartzak Esku Pilota Taldea orain dela sei urte sortu zen, aurretik udal eskolan zebiltzan zenbait gurasoren eta federazio- aren ekimenez. Taldeko zuzendaria den Juan Carlos Inorizak esan digunez, *“esko- lan dauden haurrei nolabaiteko jarraipena emateko helburuaz sortu zen”*. Izan ere, 16 urte betetzean eskolatik kanpo geratzen ziren gazteak eta ez zuten herrian esku pilotan jokatzeko jarraitzeko aukerarik. Horretaz aparte, Inoriza jaunak bere

ametsetakoa bat taldetik goi mailako pilo- tariren bat ateratzea dela aitortu digu

Gaur egun taldea 7 eta 19 urte arteko 30 pilotarik osatzen dute. Hain zuzen, esku pilotaren harrobia indartzeko ozto- poez hitz egin digu zuzendariak berak: *“gure haurtzaroan genituen aukerak bi ziren: pilota hankaz astindu edo horma baten kontra eskuz jokatu. Ez zegoen beste- rik. Orain, eskaintza hain zabala izanik zailtasunak ditugu umeak gure kiroletara*



erakartzeko. Gainera, nahiz eta gaur egun pilotaren egoera ona izan, argi dago, ez dela jende andana erakartzen duen kirola”. Ho- rri beste oztopo bat gehitu behar zaio; azkenaldian neskarik ez dagoela taldean. Izan ere, goi mailan eredurik ez egoteaz aparte, esku pilotan ohikoak diren esku

«Aisialdi eskaintza handia izanik gatxa da umeak pilotara erakartzea»

handituak edo atzamar hautsiak ez omen dira neska gaztetxoentzat erakargarri.

Inorizaren esanetan taldera hurbiltzen diren gaztetxoek gauza onak zein txarrak aurkituko dituzte. Alde batetik, goi maila- ko entrenatzailea eta giro euskalduna: *“pilotari izandako Jose Mari sekulako entre- natzailea baita eta entrenamenduetan eus- karaz hitz egiten da”*. Bestetik, gauza txar- rra frontoia da. *“Nahiz eta frontis bikaina eduki Sakoneta kiroldegiko zoria ez da batere egokia esku pilotan ibiltzeko”*. Pi- lotari gazteak astean hiru egunetan ibilt- zen dira entrenamenduan pilota astint- zen, zapatu arratsaldetan Uribe Kostako beste taldeen aurka indarrak neurtzeko. m

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net
Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Miren Zarraga > bendejera

54 urte bendeja saltzen Erandion

Aurrerantzean ez dugu ez Miren, ez Isabel, ez beste bendejerarik topatuko plazan euren ortuko gauzak saltzen. Urriaren 30a eduki dute azken eguna

Amaitu da herriko baserritarrek produzitutako gauzak zuzenean erosteko aukera eta bendejera lanbidea desgertuko da Erandion. Merkatuko plazaren historia bertatik bertara bizi izan duen Miren Zarragagaz egin dugu berba salto-kia itxi aurretik.

—Noiz hasi zinan zu plazara?
—Nik 54 urte daroatez bendeja saltzen. Nire ama ibili zen lehenago eta nik 14 urte bete barik eukiko ninduzen hasi nintzenean. Lehen plaza aurrean, kioskoaren alboan egoten ginen saltzen, gero plaza hau egiten hasi ziren eta han atzeko aldean dagoen bi mahai handietan hartu gendun postua eta harrezkero hemen nabil.
—Orduan ondo ezagutuko dozu plazaren historia...

—Berrogei urtetik gora dira zabaldu zana eta hasieran arrakasta handia euki zuen. Postu guztiak egon ziren beterik, aldean

«Oraingo gaztek ez due gure solo»

be eskilaretaraino. Danetarikoa egon zan, baina gero zabaldu zituzten Eroski eta halako denda handiak eta hona gero eta jende gitxiago sartzen izan da. Orain dala urtebete itxi zituzten arraindegia eta beste postuak. Aldean bano ez gara egoten.



Erretratuan, Miren Zarraga bere saltokian

—Zelan ekarten dozuz ortuariak plazara?
—Orain kotxez, baina nik ekarri dot bendeja buruan, astoan, karro eta zaldian eta gero furgonetatxo bat hartu gendun, eta halaxe.
—Egunero etorten zara?
—Martitzenarik zaptura etorten naz egunero. Goizeko seiretan altxaten naz eta hemen ordu biak arte egoten naz. Hurrengo egunean etorri gura badozu solora joan behar da, bendeja batu behar da eta

ordu asko dira. Halan izan da nire bizimodua. Aldeako bizimodua gogorra da.
—Eta orain jubilazinoa?
—Nozenoz ailega behar izan dau eta oraindik aurrera behar gitxiago eginda zeozer hobeto bizitzeko zera dekogu. Nik 68 urte dekot, hor dagoen batek 83, besteak 85 eta beste bat be hortxe dabil. Erretirateko sasoi a badalako dekot, ezteritza-zu? Eta gure atzetik ez dator inor. Oraingo gaztek ez due gure solo! m

uk

gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

Zumeta merkatuko plazan

laster zabalduko dute **Epelde & Mardaraz** galeriakoek prestatutako **erakusketa**



Egokitze lanak merkatu zaharrean

Garai batean Erandio Bekoako merkatu animotsu eta bizia zena, azken aldi honetan erdi hutsik ikusi izan dugu. Zazpi-zortzi baserritar besterik ez ortuko gauzak saltzen eta erosleak ere urri. Orain, itxura aldatu eta merkatuari beste bizitasun bat ematekotan daude. Artelanak eta kultur emanaldiak aurkituko ditugu lehen ortuariak salgai ziren lekuan.

Udalak eta Epelde & Mardaraz galeriakoek akordioa lortu dute merkatuko plaza erakusketa areto eta kulturune bihurtzeko. Hasteko, Zumetaren lanak izango dira ikusgai azarotik urtarrilera, baina ekaina arte ere luzatuko da alde bien arteko hitzarmena eta bestelako erakusketak eta emanaldiak gozatzeko aukera eskainiko dute epe horretan.

Udalak 18.000 euro jarri ditu ekimena bideratzeko eta galeriako esku geratu da lokala txukuntzeko lanak egitea eta erakusketak jartzea. Dagoeneko hasiak dira bi solairuko erakusketa aretoa egokitzen. Horretarako ez dute eraberritze obra handirik egingo, baina bai erdiko saltokiak kendu, bazter guztiak pintatu, kristalak koloreztatu, argi egokia

ipini eta eskenatoki bat egin. Hormirudi handi bat ere egingo dute Santi Brouard plazara ematen duen kanpo aldeko horman. Herriko artistek eta Zumetak berak parte hartuko ei dute lan horretan.

Julio Puertas kulturako zinegotzi ardura-dunak azaldu digun moduan, besterik ez dagoen bitartean Bekoako kultur etxe bilakatu da merkatuko plaza izandakoa eta Zumetaren lanak ikusgai pintzeaz gain, beste hainbat kultur ekitaldi burutzeko asmoa dute kulturune berrian: musika emanaldiak, antzerkia, arte plastikoetako tailerrak... Astean ikasleei, batez ere, zuzendutako ekintzak programatzekotan dira eta asteburutan bestelakoak.

«Artelanak eta kultur emanaldiak egongo dira lehen ortuariak salgai ziren lekuan»

Agian herritarrek ez diote aprezio handiegirik eraikin horri, baina esan behar da merkatuko plazaren eraikina garai jakin bateko arkitekturaren erakusgarri dela, egoera onean dagoela eta bere horretan mantentzea merezi duela. Hala adierazi dute behintzat adituek. m

IPUIN LEHIAKETARAKO LANAK AURKEZTEKO EPEA ZABALIK

Azaroaren 19a arte zabalik dago Euskara Zerbitzuak antolatutako IV. ipuin lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Erandioztar guztiek eta udalerriko ikastetxeren bateko ikasle direnek ere har dezakete parte, nor bere mailan. Lau maila bereizi dira eta maila bakoitzean sarituak izango diren hiru ipuinak liburuxka batean argitaratuko dira. 10 urte artekoek baserria edota natura izango dituzte idazgai; 11 urtetik gorakoek, oster, “Erandion Erdi Aroan gertatua”.

TXIRRINDULARITZA JARDUNALDIAK URRIAREN 29tik AZAROAREN 14ra

Txirrindulari ezagunek parte hartuko dute Erandioako Txirrindulari Elkarteak antolatu dituen ziklismo jardunaldietan. Txirrindularitza guztiontzako kirola dela aldarikatu eta hiru gai nagusi jorratuko dituzte beste horrenbeste mahai-ingurutan. Urriaren 29an, “Bizikleta guztiontzat: kirola, aisia, garraioa...” gaia jorratu zuten Joseba Beloki, Pedro Horriilo eta Alvaro González de Galdeano txirrindulariek Bizibizi eta Erandioako txirrindulari elkarteak ordezkaritza batera. Azaroaren 5ean Perdiguero, Matxin, Alfonso Angulo eta Valentín Dorronso arituko dira solasean “Ziklismoa eta osasuna: prestakuntza, elikadura...” gaiaren inguruan eta azaroaren 12an errepideetako segurtasuna izango dute hizpide, Atenaseko joko paralinpikoetan urrezko eta zilarrezko domina lortu dituen Javier Otxoa gonbidatu berezi dela. Solasaldiak udaletxeko Pleno aretoan izango dira iluntzeko 20:00etan. Jardunaldiak amaiera emateko, txirrindularien eskubideen aldeko 30 kilometroko bizikleta ibilaldia egingo dute azaroaren 14an: Erandio-Berango-Bilbo.



Argazkian, Javier Otxoa

SOPELOZTARRIK
UNIBERTSALENAK
DAGOENEO ETXEAN
DAUKA SARIA

2003ko Euskal Herritar Unibertsalaren saria etxean dauka dagoeneko Joane Somarribak. Pasadan hilean Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jaso zuen sopoloztarrak saria Ajuria Enean. Frantziako 3 Tour, Italiako 2 Giro eta Munduko txapelketa bat irabazi ditu Somarribak. Horrez gain, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatu du zazpi haizetara eta edonon adierazi du harro euskalduna dela. Hautagai guztien artean bera aukeratu izana sinesten ez badu ere, horren guztiaren ondorio da saria.

Joane Somarriba



LUR BARRIAK SARIETAKO
BAT JASO DU LA SALVAJE
SURF ESKOLAK

Urriaren amaieran banatu zituzten Lur Barriak sariak. Uribe Kosta, Getxo, Erandio, Mungialde, eta Txorierriko Behargintzek, Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK-k eta Eudel-ek antolatzen dute sariketa, eta horien asmoa urteko ideia enpresarialik onenak saritzea da. Aurten Mungiako Eskola Hipikoak eraman du sari nagusia. Alabaina, beste saritu batzuk ere izan dira: Behargintza bakoitzak bere eremuan eman den ideia enpresarial onena saritzen du, eta Uribe Kostako Mankomunitateko Behargintzak La Salbajeko Surf Eskolari eman dio saria.

Kale-izen berriak

Zaldu eta Artadiko auzuneen historia



Argazkian, Antzar Potzu kalea

Sopelanako auzunerik berrienetako kaleen izenak adostu berri ditu udalak. Galbidean zeuden leku-izenak berreskuratzeko asmoan toponimoak, desagertutako baserrien izenak eta inguruetako herritarrek erabiltzen dituzten izendapenak aukeratu dituzte. Komunikazio, Informazio eta Turismoko arduradun Ricardo Ibarrak hautaketa horren arrazoiak azaldu ditu: *“alde batetik antzinako izenak berreskuratu gura izan ditugu, eta bestetik, nonorren izen-abizenak ipini nahiez gero, adostasun batera heltzea ia ezinezkoa izango litzateke”*. Izenok Zaldu eta Artadi auzuneetako kale izenak dira, eta urbanizazio pro-

zesua amaitzen denean ipiniko dira.

Kale batzuen izenak lekutzen diren ingurukoetakoak dira: *Artadi*, *Zaldukanpo*, *Zalduondo*... Beste batzuek herriko historiari men egingo diote: antzarak migrazioan zihoazenean erabiltzen zuten urmaela (*Antzar Potzu* kalea); antzinako errementeria oroituko dute (*Auntegi Bide*); ipar-mendebaldeko haizeari gora-zarrea egingo diote (*Haizeder* kalea); edo aztarna arkeologikoak aurkitu diren gunea *Historiaurre* izendatu dute. Horrez gain, ezin ahaztu desagertutako baserrien izenak: *Kurtzio*, *Larrondogane*, *Zapatarietxe*... ^m

Joanes Igeregi > Bizkaiko txapelketako bertsolaririk gazteena

“Gazteon aldeko apustua egiten ez badute, 20 urte baru nor ibiliko da plazatan?”



8 urtegaz hasi zen bertsotan Joanes Igeregi

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehia-kiderik gazteena da Joanes Igeregi. 19 urteko gazte sopoloztarrak ezin izan du finalaurrekoetan eserlekurik lortu, baina *“bonaino helduta nahikoa”* egin duela uste du. Aurtengo txapelketan ez zuen bere burua Euskaldunako finalean ikusten, eta gaur Anoetako final handia oso hurrun dakusa, ostera, zera diosku itxaropentsu: *“hemendik urte batzutan gauza asko pasau leikez”*.

Sopelanako ikastolaren eskolaz kanpoko jardueretan hasi zen bertsotan 8 urte zituela. *“Baia ikastolan batez bere idatziz egiten genituen bertsoak, eta bat-batekoa lantzeko Algortako Bertsolari Eskolara (ALBE) joan nintzen, eta han ibili naz pasadan urtera arte”*. Humanitateak eta Enpresa ikasten dabil Eskoriatzan, eta bertso eskolara ez badoa ere, lagunakaz egiten du orain bert-

sotan. Halaber, Bizkaiko Txapelketa pres-tatzeko Lopategi eduki du maisu eta gidari, baina, Bizkaiko txapela Elortza edo Iturriagaren buruan ikusten du, eta azken hori dauka Igeregik gaurko bertsolarien artean gogokoen.

Gazteen aldeko apustua

Sopelanan bertsozaletasun handirik ez dagoela diosku, *“baina azken urteotan herrian gero eta bertsozale gehiago dagoala uste dot”*. Bestalde, bertso-saioak antolatzen dituztenei aldarrikapen garbia egiten die: *“bertsolari gazteen aldeko apostua egin dezatela, pentsatu beharko lukete holan jarritzen badute, 20 urte barru ia nor ibiliko dan plazatan”*. Horren ondotik, gazteen aldeko ekinean bertso eskolen lana ere goraipatzen du. ^m



ANDER DEVNA IKASOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANOA

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutsa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

sari haize jarri eta edan

4 bide pinturak

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarra 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

XXII. IBILALDI NEURTUA
AZAROAREN 20RAKO
ANTOLATU DU SEI HERRI
KULTUR ELKARTEAK

Aurreko urteetan domekaz egin bazen ere, aurten XXII. Ibilaldi Neurtua zapatuan egingo da, hilak 20. Sei Herri Kultur elkarteak antolatzen duen ibilaldiak beti legez bi bide edukiko ditu, bata laburragoa umeentzako (8km), eta bestea nagusientzako (16 km). Umeek 9:30ean daukate irteera ordua, eta nagusiek 9:00etan (izena-emateko ordu erdi lehenago). Ibilbidea burutu dutenentzako, haurrentzako jolasak (13:00), triki-poteoa (14:00), eta doako bazkari erraldoia prestatu dituzte. Arratsaldeko 18:00etan sari-banaketa egingo da, eta gero erromeria (20:00).

Harremanetarako: 665 701 323
Munarrikolanda



JAVIER OTXOARI
GORAZARREA

Herritarrek, zaletuek, eta lagunek bat egin zuten urriaren 17an Javier Otxoa txirindulariari omenaldi beroa eskaintzeko. 2001ean anaia bikia galdu eta bera larri zauritu zeneko istripu latzari aurre egin, eta bizikleta alde batera ez uzteko erabakia hartzearen fruitu dira Atenaseko Joku Paraolimpiarretan lortutako bi dominak: bata urrezkoa (txirindularitzako proba konbinatuan) eta bestea zilarrezkoa (erlojupekoan). Jaioterrian bertan egin zioten omenladia lortutako garaikurrengatik zorionak emateko, baina batez ere, bere ibilbideari egindako omenaldia izan zen.

Seme-alabei euskaraz egiteko

ikasten dabilta Berangoko hamar ama



Gurasoentzako Euskara Ikastaroko 2004-2005 promozioiko ikasleak Ainhua Alzaga irakasleagaz

Familiaren esparruan euskararen erabiler indartzeko asmoagaz, orain dela 6 urte abiarazi zuen Berangoko udalak Gurasoentzako Euskara Ikastaroa. Azken 3 urteotan Ainhua Alzaga berangoztarra izan da irakaslea, eta bere ahotik ikasiko dituzte aurten ere hamar bat amek seme-alabakaz euskaraz komunikatzeko gakoak. Gurasoentzako ikastaroa bada ere, amek bakarrik eman dute izena aurten, eta aurreko urteetan ere antzera gertatu izan da. Alzagaren ustez, horren arrazoa ikastaroak goizez bakarrik emateagatik da: *“aitak beharrean dauden orduetan dira eskolak, eta ikasta-*

roa arratsaldez eskainiz gero jende gehiago etorriko litzatekeela uste dut”. Hala ere, baikor dagoela esan digu.

Ordu gehiagoren eskean

Euskara maila desberdineko ikasleak batzen dira eskoletan, eta Alzagak onartu legez, *“denentzako eskola bera ematea ez da ona, maila bakoitzeko talde bana sortu nahi nuke, baina horretarako eskola-ordu gehiago eman beharko nituzte”*. Gainera, negurako berogailua ere behar dutela diote ikasleek. Ikastaroa hasi da dagoeneko, baina oraindik ere parte hartzeko aukera badago. Anima zaitez.^m

Iratxo Gorria > Urdulizko dantza taldea

Hil honetan beteko ditu 14 urte Iratxo Gorria taldeak, eta mutil faltan dabil



Iratxo Gorria-ko dantzari gaztetxoak

Oraintxu beteko dira 14 urte Urdulizko dantza taldea sortu zenetik, ordutik gaur arte Begoñe Eskardak eduki du Iratxo Gorria-ko dantzariak hezteko ardura.

Dantzari gehienak urduliztarrak dira, baina Sopelana, Barrika, Laukiz eta Berangokoak ere badira. 40 bat dantzarik osatzen dute taldea, eta denak dira andrazkoak. Eskardak azaldu legez, *“taldean mutil gutxi edukitzea dantza talde ia gehienek daukaten arazoa da, baina gutxi edukitzea gauza bat da, eta bestea, bat ere ez edukitzea”*. Hastapenetan, Iratxo Gorriak mutil dantzariak izan zituela gogoan dauka Eskardak, *“apurka-apurka beste jarduera batzuetan hasi, futbola esku pilota... eta taldea utzi zuten”* Alabaina, geroztik, nonoiz mutilen bat dantza taldera hurbildu dela aitortu digu, *“baina hainbeste*

andrazkoren artean, lotsatu edo kokildu egiten dira, eta azkenean ospa egiten dute; nik ausartak izateko eta geurea hurreratzera animatu gura nituzke”. Hala ere, Iratxo Gorria-ko neskek mutilen dantzak ikasi dituzte eta gizonez janzten dira dantza mistoak dantzatu ahal izateko.

Dantzari gazte-gazteak

Iratxo Gorria-ko dantzariak 3 adin-tarteren arabera banatzen dira: nagusiak, gazteak (8-13 urtekoak), eta txikiak (4-8 urtekoak). Escarda ere gazte-gaztetik hasi zen dantzan, amak zuzentzen zuen Berangoko Itxarkundia zeneko taldean. Orain dela 3 urte utzi zion dantzatzeari, baina dantza irakasten jarraitzen du, eta berak aitortu legez, *“dantzari bat faltako balitz arin jantziko nituzke abarkak eta gona”*.^m



EUSKARAREN PIPER ETA GATZA

Hasiberrientzako menua, enpresentzako menu berezia, eta zeure neurmiko ikastaroak: euskararen erabiler bultzatzeko, hizkuntz eskakizunak prestatzeko, EGA ateratzeko... Euskara ikasteko hamaika aukera aekn

Udalek subentzionatuta

aek

www.aeknet.net

Unbe Kosteko aek: Algorta Tel: 94 4304734 • Leioa Tel: 94 4646063 • Sopela Tel: 94 6764876 • Plentzia/Goriz Tel: 94 6773607 902 36 22 94



**KURKUDI
LIBURUDENDA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA



URDULIZ

Teléfono: 940 761 123

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



URIBE KOSTAKO IPUIN
LEHIAKETA ANTOLATU DU
EUSKARA ZERBITZUAK

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak VII. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa 8 eta 18 urte bitarteko ume eta gazteei zuzenduta dago, eta idazlanek euskaraz idatzitakoak eta argitaratu bakoak izan behar dute; gaiak, ostera, libreak dira. Lanak Mankomunitatea osatzen duten herrietako Kultur Etxeetan edo Mankomunitatean bertan aurkeztu behar dira azaroaren 16a baino lehen.

Informazio gehiago: 94 676 26 74

GOLF ESKOLA
ZABALDU DUTE GORLIZEN

Bizkaiko lehenengo udal golf eskola zabaldu zuten pasadan hilean Gorlizen. Ez da Bizkaiko golf eskola bakarra, baina ekimen pribatu barik egiten den lehengoa da. Gorlizko udalak 78.000 euro baino gehiago erabili ditu Uresaranseko kiroldegi alboan dagoen golf eskola egiteko, eta bertan golfean abiarazteko edota hobetzeko eskolak eskainiko dituzte.

UMEENTZAKO EKINTZAK
BARRIKAKO LIBURUTEGIAN

Uda aurretik egin legez, udagoien honetan ere umeentzako ekintzak antolatzen hasi dira Barrikako liburutegian. Ekintzok hilean bitan egiten dira, zapatuetan goizeko 11:00etatik 13:00etara. Azaroan, 13an eta 27an izango dira; abenduan, ostera, 11n eta 18an.

GORLIZ

Argazki-artxiboa osatzeko erretratu bila



Gorlizko erietxea 1919an eraiki zuten, argazkian “sanatorioaren” eraikitze lanak

Gorlizko argazki bilduma edota artxiboa osatzeko asmoagaz, 15 urte daroaz herriko argazkiak batzen Gorlizko Kultura sailak. Gaur egun, herriko ehunka argazkiz beteta dago artxiboa, baina Kultur Etxearen helburua ahalik eta argazki gehien biltzea da, hau da, bilduma osatzen jarraitzea. Horretarako, herritarren laguntza beharrezkoa da, eta horregatik argazki zahar zein berriak helarazteko deia luzatzen du Kultur Etxeak, eta

eskari horri erantzuten diotenei argazkiaren kopia handitua oparituko diete. Gorlizko argazki bilduman aurki daitezkeen argazkirik zaharrenetakoak XIX. mendeko azken hamarkadakoak dira, gehienak panorami-koak edota eraikuntza berriek eragindako aldaketak erakusten dituztenak dira. Horren albotik, urtero antolatzen den argazki lehiaketako argazkiak ere gordetzen dituzte bilduma horretan. ^m

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

QV S

20 ANIVERSARIO
URTEORREN

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

Azaroak 7-20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Valentin de Urrutia Mariscal-ren margoak.** Erromoko Kultur Etxean. Azaroaren 13ra arte.
- **Lorena Condiño-ren olioak.** Algortako Kultur Etxean. Azaroaren 13ra arte.
- **Maite Bolunburu-ren olioak.** Algortako Kultur Etxean. Azaroaren 15etik 27ra arte.

PLENTZIA

- **Roberto Landeta-ren margoak.** Erakusketa gelan. Azaroaren 15era arte.
- **Maria Eugenia Maraval-en margoak.** Erakusketa gelan. Azaroaren 16tik 30era.

LEIOA

- **Metafisika eta maitasuna.** Carmen Palomero-ren sorkuntzak. Kultur Leioako erakusgelan. Azaroaren 19era arte.

BERANGO

- **70. hamarkadako lan grafikoak.** BBKren erakusketa mugikorra. Azaroaren 14ra arte.

ANTZERKIA

BARRIKA

- **Bizi alai.** Txontxongilo antzerkia. Herriko liburutegia. Azaroak 19, barikua. 18:00.

ZINEMA

GETXO

- **Euriaren seme-alabak .** Haur Zinema. Getxo Antzokia. Azaroak 7, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

- **Pegado a ti.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Azaroak 10, eguaztena. Areetako Gran Cinema Azaroak 11, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

- **Lejano.** Cinema Paradiso. Azpitoluludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Azaroak 12, barikua. 22:30. Sarrera: 2,60 euro.

- **Scooby Doo II .** Haur Zinema. Getxo Antzokia. Azaroak 14, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

- **Elephant.** Zine-Kluba. Getxo

► **Emanaldiak**
Xabier Amurizaren bertso-paper hautatuak
Algortako Bertso Eskolak (ALBE) antolatuta, Bertso-paper hautatuak emanaldiak egingo dira Getxon. Emanaldiok Xabier Amurizak gidatuko ditu eta dagoeneko hasi badira ere, datorren urteko maiatza arte iraungo dute. Aldai Kulturgunea daukate topaleku hilean behin bertso-paper hautatuak emanaldiez gozatzeraz hurreratzaren direnek. Arratsaldeko 20:00etan hasi eta bi ordu irauten dute eta doakoak dira. Hitzorduak hurrengo egunetan izango dira: azaroak 15, abenduak 13, urtarrilak 17, otsailak 14, martxoak 14, apirilak 18 eta maiatzak 16.

• **Non:** Aldai Kulturgunean • **Noiz:** hurrengoaz azaroak 15, astelehena

- Antzokian azaroaren 17an, eguaztena. Areetako Gran Cinema. Azaroak 18, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

- **El domingo, si Dios quiere.** Cinema Paradiso. Azpitoluludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Azaroak 19, barikua. 22:30.

- **Super agente Cody Banks .** Haur Zinema. Getxo Antzokia. Azaroak 21, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

- **Cuentos de la guerra saharai.** Zine-Kluba. Getxo Antzokian. azaroaren 24an, eguaztena. Areetako Gran Cineman, azaroaren 25ean, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

- **Northfork.** Cinema Paradiso. Azpitoluludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Azaroak 26, barikua. 22:30. Sarrera: 2,60 euro.

PLENTZIA

- **Machuca.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Azaroak 12, barikua. 22:00.

- **Tormenta en el lago.** Gazteentzako zinema. Goñi Portala. Azaroak 13, zapatua. 18:00.

- **Vidas ajenas.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Azaroak 19, barikua. 22:00.

- **Merlin el encantador.** Haurrentzako zinema. Goñi Portala. Azaroak 20, zapatua. 18:00.

GORLIZ

- **Canguro Jack.** Udal erakusgela. Azaroak 7, domeka. 17:00.
- **Chihiro-ren bidaia (euskaraz).** Erakusgela. Azaroak 21, domeka. .

MUSIKA

GETXO

- **Camerata Albia.** XIX. Udazkeneko Kontzertuak musika zikloaren barruan. Getxo Antzokia. Azaroak 12, barikua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

- **Nathalie Stutzmann (kontraltoa) eta Inger Södergren (pianoa).** XIX. Udazkeneko Kontzertuak musika zikloaren barruan. Getxo Antzokia. Azaroak 13, zapatua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

- **Brodky Quartet.** XIX. Udazkeneko Kontzertuak musika zikloaren barruan. Getxo Antzokia. Azaroak 19, barikua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

- **L'Empordako ganbera orkestra.** XIX. Udazkeneko Kontzertuak musika zikloaren barruan. Getxo Antzokia. Azaroak 20, zapatua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

- **Amelie Dessay, Elena Cadierna eta Sonsoles Pastor piano-jotzaileen kontzertuak.** Aní arte eskolan (Alangobarri 2, Algorta). Azaroak 20, zapatua.

BESTEAK

GETXO

- **Errezitaldia.** Galatearen eskutik *Desarmada* musika eta olerki ikuskizuna. Getxo Antzokia. Azaroak 11, eguena. 20:00. Sarrera doan.

PLENTZIA

- **Eskiatzera bidaia.** Pas de la Casara (Andorra) eskiatzera joateko bidaia antolatu du Kultur Etxeak, abenduaren 3tik 8ra. Prezioa:366,50 euro (autobusa, 4 egunerako erremonteak, apartamenduak pisten alboan eta asegurua barne). Izena emateko epea azaroaren 22ra arte. Informazioa gehiago: 94 677 55 41

namaika hide

zenbat gara elkartea

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 76 01

1 Kafe Antzokia Bilbo
2 Kafe Antzokia Ondarroa
3 Ondarroako Argemir Itas
ostialua
4 Algara korparista
5 Zazparrada Gaztegundea
6 Oigetan Umeak
7 Elkartearen zerbitzu,
ikastaro eta tailerrak
8 Bakaikuko ebrea
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10 Zenbat Gara elkartea
11 Gara argitaletxea

namaikaukera

[albuma]



Antzerki jardunaldiak

Beste behin ere –eta hogeita bigarren aldia da aurtengoa–, Getxo euskal antzerkiaren hiriburua izan da. Jardunaldiotan euskal konpainien lan bikainez gozatu dute zaletuek bai Getxo antzokian, bai herriko kaleetan. Jardunaldi hauen uztza oparoaren ale bat baino ez dugu ekarri orrialdeotara: Kapikua Teatrok Algortako geltokiko plazan eskaini zuen zirku ikuskizuna.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Jean Haritschelhar, 81 urteko baigorriarra, azken hamasei urteotan izan da euskaltzainburu, eta aurretik beste 22 eman zituen euskaltzainburuorde. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula ia lau hamarkada egotea euskararen akademiaren zuzendaritzan eta, horregatik beharbada, urte hau amaitzeagaz batera agur esango dio karguari. Baita asebeteta agur esan ere, egindako lana aitortzen zaiola ikusita, seguruenik horren bila egin ez arren. Izan ere, orain gutxi jaso zuen, Eusko Ikaskuntzaren eskutik, euskaltzainburu izandako beste gizon baten izena daroan Manuel Lekuona saria. Benetan sari berezia Haritschelharrentzat, ondo ezagutu zuen-eta “gizon handitzat” daukan Lekuona. Ondoko berbaldian, Euskaltzaindiaren eta euskararen hainbat nondik norakoei eman diegu arreta.

Jean Haritschelhar

Euskaltzain, euskaltzale

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zertan dabil Euskaltzaindia oraintxe? —Euskara batua osatzen segitzen dugu. Eta nik uste dut gero etorriko direnek ere segitu beharko dutela. Euskaltzaindian lan oparoak egiten ari gara; hiztegigintza, adibidez. Abenduan edo datorren urteko lehen hilabeteetan argitaratuko da Orotariko Euskal Hiztegiaren 16. liburu-kia. Azkena. Hor altxor ikaragarria dago! Eta hor sartuak daude euskal literaturan erabiliak izan diren hitz gehienak. Erran nahi baita, idatzitakoak. Oinarrizko lan bat egin da zinez.

—Hiztegi Batua ere hor dago...

—Bai. Jadanik liburu bat agertu dugu, 23.000 hitzekin, eta sartu gara beste itzuli batean. “B” letran gaude orain, baina pentsatzen dut 25.000 edo 30.000 hitz gehiago izanen direla, beraz 50.000 pasatuko dugula. Hizkuntza batek 50.000 hitz daukalarik, ez da gaizki. Ez diot horrekin bukatua izanen dela, beharko da segitu.

—Hiztegigintza ez eze bestelako beharrik ere badaukazue, ordea...

—Ikusten dut jadanik eskuara baturantz gauza asko eginak direla. Lehenik ortografia. Edozein kazeta, egunkari... ira-

kurtzen ahal duzu, izan dadin hemengoa, izan dadin Iparraldekoa, eta ortografia berbera da. Ez da halakorik gertatzen okzitanierarekin, bretoierarekin... Hartzen badituzu morfologia, deklinabidea, aditzak, erakusleak... Jadanik eginda dago batasuna. Gertatzen dena da joskera beharko dela berriz ikusi.

—Liburuak, arauak, era guztietako lanak... argitaratzen dituzue. Ailegatzen dira euskal hiztunengana?

“Kritikak ditugu, bai, baina gure gomendioak gehienetan onartuak dira”

—Eginahalak egiten ditugu. Irakasleek, eskola mota guztietan, badakite badirela arau horiek, eta horien artean hedatuak dira. Gero, norbaitek nahi badu zerbait jakin, galdera bat egin, hor dugu Jagonet. Webgunea ere badaukagu. 100.000 galde egin dira pertsona-izenei buruz aurtengo irailean! Oraingo tresneria baliatzen dugu zabaltzeko. Ez dakit gehiago egiten ahal dugun.


—Kritika ugari jasotzen duzue...

—Dudarik gabe, baina bizitzen dugun garaia garai berezia da. Guk gomendioak

egiten ditugu -gomendioak baitira beti-, eta gero jendeek onartzen dituzte ala ez. Baina ohartzen naiz gehienetan onartuak direla. Mitxelenak erran zuen Euskaltzaindiak gidari izan behar duela. Eta nik uste dut hori egiten dugula. Etsenplu bat, hizkuntza bat nola dabilen erakusteko: XIX. mendearen bukaeran kirol batzuk etorri dira herrialde anglosaxoietatik, hala nola futbola. Zer gertatu da? Hitz bat zuzenki hartzen da, baina hor dira garbi-

zaleak, eta horiek sortzen dute beste hitz bat lehenbizikoaren aurka: *balompié*. Nork irabazi du? *Fútbol*ek. Hartzen duzu beste bat: *basketball*. Eta *baloncesto*, *basketball*en kontra egina. Nork irabazi du? *Baloncestok*. Aldi bakoitzean batek irabazi du. Hara nola dabilen hizkuntza bat. Gauza berbera da euskara batuarentzat. Gure gomendioak gehienetan onartuak dira. Batzuek ez baldin badituzte onartzen, tira.

—Tradizioari, aspaldiko idazleei gehiegi begiratzea ere leporatzen dizuete,



eurek erabilitako berbak oraingo euskararen sartuz...

—Hizkuntza batek baditu bere oinarriak, eta oinarri horiek behar dira behar den bezala ikertu. Nik ez dut uste kritika ona den hori. Erabili ditugun hitzak beren balioa bazuten, gehienetan amankomunak baitira euskalki guztietan. Egia da beste hizkuntza bat behar dela sortu, oraingoa, oraingo hitzekin, eta horretan beharbada pixka bat atzeratuak garela. Onartzen dut hori. Pentsa dezagun orain lau mende sortua dela frantses akademia, bizpahiru mende espainol akademia, eta guk 85 urte ditugula. Beste etsenplu bat: hitz espezializatuak nola sortzen dira beste hizkuntzetan? Espezialistek sortzen dituzte. Eta gero akademiak onartzen

ditu. Baina ez ditu akademiak sortu. Gauza bera behar dugu egin hemen. Eta parte bat Hiztegi Batuaren bigarren itzuli horretan egingo da. Zenbat denbora beharko da? Ez dakit. Denborari denbora utzi behar zaio, ez baikabiltza presaka.

“Euskaraz txarto egiten dela? Nehor ez da behar den bezala mintzo”

Akademia bat ez da hitz sortzaile, nahiz noizbehinka hitzak ematen ahal dituen. “A bildua”, adibidez. Baina nor da Euskaltzaindia matematikako hitzak sortzeko?

—*Euskara batuaren ajeak* liburua argitaratu zuen behinola Euskaltzaindiako kide batek. Sarritan berba egiten da eus-

kararen kalitate eskasaz, erdaren eraginez hain zuen...

—Bai, hizkuntza guztiak halakoak dira. Begira gaitezen garbikerietarik. Eta nahi-ta erabiltzen dut garbikeria hitza, garbitasunaren orde. Garbitasuna beharrezkoa da, baina ez da hizkuntza garbirik. Bai badakit Frantzian ere plenitzen direla, ez dela gehiago frantsesa erabiltzen, baina *frangleé* delakoa. Asteburuak frantsesez *weekend* dira orain. Hizkuntza batek galtzen du zerbait horrekin? Ez dakit. Beharko dugu beti ikusi nondik heldu diren eta onartuak izan diren hitzak. Frantsesez *corrida* eta *torero* erabiltzen dira; horiek aberasten dute hizkuntza bat. Baina, dudarik gabe, ez da sobera lerratu behar beste hizkuntzetara.

—Berbez baino, joskeraz niharduen nik, esamoldeez...

—Aspaldian sartua da joskerarena ere, beste hizkuntzetarik etorria dena, eta ohartu “etorria dena” esan dudala eta ez “etorri den”. “Etorria dena” erromanismoa da, baina osoki sartua da. Euskaraz txarto egiten dela? Nola mintzo dira besteak? Behar den bezala mintzo dira espainolak, eta frantsesak? Nehor ez da behar den bezala mintzo. Begira Andaluzian nola ahoskatzen duten. Baina ez da dudarik *er sordao* ahoskaten dutelarik, *el soldado* idazten dutela.

—Zeure abizena euskal ortografiaz ez idaztea aurpegiratzen zaizu batzutan...

—Ikasi dudan bezala idazten dut nire abizena. Norbaitek ortografia euskaldundu nahi baldin badu, egin dezala, ez dut ezer kontra. Baina nire ohitura zaharra da; 70 urte baino gehiago da idazten dudala. ^m

Txosna

Pedro Zarrabeitia

Hauxe duzue Pedro Zarrabeitia argazkilari handiak
helarazi digun irudia. Portu Zaharreko jaietan egin
zuen orain dela bost bat urte. Gerra garaiotan
bakerako deia.



PORTU ZAHARRA, 1999



AIXERROTAKO LANDAK, 2004-07-24

Egun handia

Egun handia dugu paella eguna Getxon. Izan ere, milaka eta milaka lagun biltzen gara Aixerrota inguruko landetara jai giroan egunpasa egiteko. Toldoa alokatu eta txukundu, aurreko egunetan koadrila elkartu jatekoak eta edatekoak erosteko, den-dena Aixerrrotako landetara igo, paella egin...

Prestaketa lan handia eskatzen du paella egunak. Baina honek ez du antza inor kokiltzen, getxoztarrok jai gose handia izaten dugu-eta udako oporren atarian. Gure argazkilariek goizetik iluntzera arte han ikusi zutena ekarri nahi izan dugu orrialdeotara. Azkenik, gogora ezazue datorren urtean 50 urte beteko dituela Itxas-Argiako lagunek antolatzen duten jai honek.

Aurtengoa legez, zalantza barik, hurrengoa ere egun handia izango da!

Argazkiak: **Asier Mentxaka & Jose Mari Martinez “Bubu”**











zineeskola

Oskar Fernández

Zinema independentea

Zutabetxo honetan zinema eta zinemaren industriaren gainean berba egin dugu inoiz, eta zinemak zazpigarren arte legez begiratuta ez duela, gehienetan, zer ikusirik zinema ekoizle handiekin aipatu dugu ere. Bi bide guztiz desberdinak jorratzen dituzte arteak eta industriak. Eta zinemagintzan salbuezpena da biak leku berdinetik aritzea. Hau dela eta sortu zen zinema independentea. Gure pantailetan gehien ikusten diren filmak, desberdintasun handiz, Ameriketako Estatu Batuetatik datoz, eta han zinema ekoizleek dolarrak baino ez dituzte ikusten. Beraz hainbat eta hainbat proiektu haiek egindako eredu sinple eta errazan sartzen ez direnez zakarrontzira doaz edo armairu ilun batean ahaztutako bazterrean gelditzen dira. Egoera latz eta bortitz honi aurre egin ahal izateko sortu zen gaur egun ezaguna dugun zinema independentea: beste istorio batzuk ikusleen begien aurrean garatzeko eta beste era batean adierazteko. Zuzendari hauek zinema hizkuntza era desberdinetan erabiltzen zuten. Ere mu honetan egindako filmak koste gutxiokoak dira. Aktoreen soldata, gidoilariena, zuzendariarena, teknikoena eta abarrena ez da gauza handia. Beraz, ez dute ekoizle handien pean egon behar. Diru gutxiarekin, gogo handiarekin eta irudimenarekin lan bikainak eta ederrak egin dituzte zinema independentean dauden pertsonak. Ezagunak hauekin egindako filmak gehienetan ez dira zinema areto komertzialetan proiektatzen, eta haien zabalkuntza zinemaldien bidez egiten da. Hala ere, salbuespenak ere badaude eta hiri batzuetako zinema areto batzuetan, noizean behin ikus daitezke. Gure herriatik atera gabe, nahi izanez gero, aukera izango dugu hainbat zinemalditan. 4

Euskal zinemaren jaialdia

Azaroaren 18tik 20ra 30 film labur baino gehiago ikusi ahal izango dira **Lekeition**

Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileraren (EZBB) XXVII. edizioa azaroko azken aurreko asteburuan egingo da, hilak 18, 19 eta 20. Aurten ere, ikus-entzunezko ekoizpen euskalduna erakutsi eta sarituko du EZBBek eta antolatzaileek jakinarazi dutenez 30 film labur baino gehiago aurkeztu dira lehiaketara.

1978an sortu zenetik, EZBBren helburua berbera da: euskaraz egiten diren ikus-entzunezko lanak zabaldu eta ezagutzera ematea. Baina, denborak aurrera egin ahala, lanak erakustez gain, saritu ere egi-

«Ikus-entzunezko ekoizpen euskaldunak zabaltea eta saritzea helburu»

ten dituzte. Baina hasieratik errotoak baldintzetako bat filmek edota ikus-entzunezko lanek euskaraz izan behar dutela da, eta ezin izango dute 30 minutu baino gehiago iraun.

Bestalde, antolatzaileen esanetan, EZBB prestatzeko 36.000-42.000 euro bitarteko aurrekontua behar da, baina *“diru-laguntzak inoiz ez dira nahikoa izango”*. Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Lekeitioko udala eta Euskaltel-en



Bileraren kartel iragarlea

diru-laguntzak jasotzen ditu EZBBk. Sariak, 750 eta 300 euro bitartekoak dira. Epaimahaikoek 6 irabazleen artean lan bat aukeratu dute, Bilerako filmik onena lege, eta horrek garaikur berezia jazoko du: EZBBko Antzarra. m

Jakingarri

- Non: Ikusgarri aretoa (Lekeitio)
- Noiz: hilak 18, 19 eta 20
- Zer: Euskal Zine eta Bideo bilerara aurkeztutako film laburrak.
- 30tik gora bideo eta film labur.

Ez galdu > “Inch’Allah dimanche”

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** azaroak 19, barikua • **Ordua:** 19.30 • **Zinema** Paradiso



Hauxe da Yamina Benguigui zuzendariak egin duen lehenengo film luzea. Emakume hau Lille hirian (Frantzia) jaio zen 1957. urtean. Lan hau burutu baino lehenago film labur bi eta dokumental batzuk egin zituen. Gidoia berak idatzi zuen eta gertaera batzuek, nolabait, bere bizitza islatzen dute. Nazioarteko hainbat zinemalditan filme honek sari asko jaso ditu. Esaterako, Toronton Fipresci erakundeak ematen duen sari ospetsua lortu zuen bere gaitasunagatik hirugarren munduko emakumeek pairatzen dituzten egoera latzak hain era egokian kontatzeko. Istorio interesgarri eta hunkigarri honek kontatzen digu nola joango den pelikularen protagonista bere hiru seme eta alabekin eta amagin-arrebarekin ere Argeliatik Frantziara senarrarekin elkartzeko asmoz. Ahalegin handiak egingo ditu egoera berriari aurre egiteko.

Bertako jazz

Bertoko jazzaren suspertzaile **Errabal** zigiluak laster kaleratuko du **laugarren lana**



Sant Pau 44 talde gasteiztarako kideak


Euskal giroko jazz bultzatzeko asmoagaz jaio zen orain dela pare bat urte Errabal zigilua, Gaztelupeko Hotsak-en laguntzagaz. Jazzale euskaldun batzuen eskutik sortu zen Errabal eta dagoeneko jazz kutsuko hiru diska kaleratu ditu. Horrez gain, udazken honetarako laugarren bat prestatzen dabiltzala iragarri berri dute. Miren Aranburu Esemblek Jean Louis Hargous saxo joleagaz batera sortutako *“Gorri isila”* izan zen zigiluak argitaratutako lehengo lana, bigarrena Sant Pau 44 talde gasteiztarak osatutakoa bigarrena (2003an), eta

orain dela hilabete batzuk, apirila aldean, plazaratu dute hirugarrena, Jon Urrutia piano-jole bilbotarraren “Home made” diska. Laugarren bat ere ekoizte prozesuan dauka Errabalek: Teresa Zabalza Quintet Iruñeako taldearen lehenengo lana.

Bi urte eskaseko ibilbidean 4 euskal jazz disko atera ditu merkatura Errabalek, baina are gehiago: jazz euskadunengana hurbildu du, jazz musikari euskaldunei atea zabaldu dizkie, eta jazz euskaraz ere gozatzeko aukera paregabe eman du. m

diskoak

Gorkhiru
Gorkhiru
Gaztelupeko hotsak



MoMau taldeko piano-jole eta buru izan zen Gorka Lasa donostiarak bost urte igaro zituen New Yorken, eta bada denbora Bartzelonan bizi eta Gorkhiru taldea osatu zuela bertako musikariakaz. Musika beltzaren doinueta oinarritutako zortzi kanta dotore, goxo eta koloretsu egin dituzte. Abestiek funk eta soul tradizioan sartzen gaituzte, euskaraz gutxi joratu den arloa.

The Libertines
The Libertines
Sinnamon



Carl Barat-en eta Pete Doherty-en gaiztakeriei esker, The Libertines taldea pagotxa bihurtu da prentsarentzat: borrokak, lapurretak, drogak... Hala ere, musikaz kanpoko albiste horiek ez dira eragozpen izan bigarren disko bikain hau egiteko. Londresko laukote honen rock azkarra eta urduria (minutu bi eta erdiko kantak) barrena husteko lagunarte ezin hobea da.

Getti' over may head
Brian Wilson
Dro



Beach Boys talde gogoangarriaren burua itzuli zaigu. Disko honetan, besteak beste, Eric Clapton-ek, Elton John-ek eta Paul McCartney-k parte hartzen dute. Emaizta surf-poparen eta sikodelia koloretzuaren gizonaren talentua aldarrikatzen duen diskoa da. Wilsonen tarteka-marteka kaleratzen du, eta horrek (bere melodia alaiakaz eta moldaketa dotoreakaz batera) balio gehiago ematen dio lan honi.

kontzertuak >

Udazkenekoak Getxon



XIX. Udazkeneko Kontzertuak musika zikloagaz ekarri ditu Getxok aurten ere. Azaroaren azken hiru asteburuetarako hitzartu dute zita

antolatzaileek, bariku eta zapatuetan. Kontzertuok Getxo Antzokian emango dira arratsaldeko 20:00etatik aurrera, eta beste btzuren artean, hurrengo musikari eta taldeek jardungo dute: Camerata Albia (azarok 12), Nathalie Stutzmann kontraltoa eta Inger Södergren piano-jolea (hilak 13), Brodsky Quartet (azarok 19), L'Empordá ganbera-orkestra (hilak 20), Conductus Ensemble (hilak 26), eta azken zapatuan Josep Colom pianista. Sarrerak 3 eurotan daude salgai dagoeneko.

* Argazkian, Nathalie Stutzmann kontraltoa

Hiru Truku >

Nafarroako kantak

Hasierako helburu berberagaz kaleratuko du Hiru Truku taldeak hil hasieran disko berria. Sustraiak ondo errotuta, baina ikutu berritzaileagaz kantu tradizionalak berreskuratzeko asmotan, Hiru Truku-k plazaratzen duen hirugarren diskoa izango da *Hiru Truku III Nafarroako Kantu Zaharrak*. Aurreko bi lanek Bizkaiko kanta zaharrak izan dituzte oinarri eta oraingoak Nafarroako kantutegi zaharren eguneraketa izan da. Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bixente Martinezek osatzen duten taldearen azken lana Metak diskoetxeak merkaturatuko du, esan lege, azaro hasieran.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (xxvi)
Hiner Saleen

Hiner Saleemek gazterik utzi zuen aberria. Etxean jarraituz gero, goiz ala berandu, militarrek bere bila etorriko zirela jakin bazkienez, erbestera jotzea erabaki zuen. Hiner Saleemek zinemagile izan nahi zuen. Etxean jarraituz gero, goiz ala berandu, ikasketak utzi eta lanean hasi beharko zuela jakin bazekienez, atzerrian bere irudimenari hesirik ez jartzea erabaki zuen.

Urteak igaro dira Hiner Saleemek gurasoak azkenekoz ikusi zituenetik. Baina ez da egun bat bera pasatu zeinean haiekin gogoratu ez den. Gaur egun zinemagile ezaguna da Hiner Saleem, lortu du beraz, bere ametsa errealitate bihurtzea. Baina bere herriko paisaiak, txikitan ezagutu zituen kale eta txokoak, haiek ere ezin ditu burutik kendu. Eta bere lanetan, hain zuzen horretaz mintzo da. Bere bihotzean existitu baina mapetan agertzen ez den herrialdeaz gogoratzen da beti, aberri ukatuaz. Hiner Saleem kurdoa dugu eta urte hasieran “Nire aitaren fusila” liburua plazaratu zuen. Hilabete gutxitan munduko ia hizkuntza guztietara itzulia izan den liburua Juan Kruz Igerabidek ekarri du euskarara eta Alberdaniak argitaratu. Liburu horretan kontatzen dena ezaguna egingo zaigu, gertukoa baita Hiner Saleemen begirada. 4

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Liburu unibertsalak euskaraz

Xabier Paya getxoztarrak euskaratuko du Tennessee Williams-en *A streetcar named Desire*

Literatura Unibertsala bildumaren barruan euskaratuko diren hurrengo sei liburuak zeintzuk izango diren eta itzultzaileen izenak jakitera eman ditu Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteak (EI-ZIE). Literaturaren historian leku berezia daukan liburu horietako bat euskarara ekartzeko ardura Xabier Paya getxoztarrak dauka: Tennessee Williams-en *A Streetcar Named Desire* liburua itzuliko du Algortakoak. Gainontzeko beste bost itzulpenak hauek dira: Txomin Arratibelek *Wide Sargasso Sea* (Jean Rhys) euskaratuko du, Karlos del Olmok *Under the Volcano* (Malcom Lowry), Mirentxu Larrañagak *Ipuinak* (Dorothy



Bertsolari ezaguna ere bada Xabier Paya


«Kaleratzear dira literaturaren historian funtsezko diren sei itzulpen»

Parker), Fernando Reyk *Piccoli equivoci senza importanza / Donna di Porto Pim* (Antonio Tabucchi), eta Monika Etxeberriak *Enciklopedija mrtvih* (Danilo Kis).

Bestalde, urruneko letren baratzetan punta-puntako egileek idatzi eta Literatura Unibertsala bildumaren ekimenez euskaratu diren sei liburu berri laster kaleratuko dituzte Alberdania eta Elkar argitaletxeek. Liburuok dira: Antton Garitanok itzultitako *Beloved*

(Toni Morrison), Iwaszkiewicz euskaratu duen *Wilkoko ardereñoak* (Adam Zaiszewski), Karlos Zabalaren *Le ventre de Paris*-en itzulpena (Emile Zola), Julen Gabiriak euskarara ekarri duen *Peter Pan in Kensington Gardens* eta *Peter and Wendy* (J. M. Barrie), Patxi Zubizarretaren hitzetan irakurriko dugun *Zuagaq al-Midaq / Minarien karrika* (Nagib Mahfuz) eta Koldo Bigurik itzuli duen *Cronache di poveri amanti* (Vasco Pratolini). Amaitzeko esan, gaur egun arte Literatura Unibertsala bilduma idazle esanguratsuenen 109 libururen itzulpenek osatzen dutela. m

liburuak



Hamabost zuari
Karmele jaio
Elkar

Gizon-emakumeen arteko harreman korapilatsuetan oinarritu da Karmele Jaio bere lehenengo liburu eder eta tarteka mingari hau idazteko. Binakako bakardadea, komunikazio-inkomunikazio arazoak, desioaren eta errealitatearen arteko amildegia... Gai horietatik abiatzen eta elikatzen dira hamabost *zauri* hauek.



Gloria Mundi
Fernando Morillo
Elkar

II. Mundu-Gerraz geroztik fisikari ospetsuenek munduaren geroa alda dezakeen aurkikuntza isilpean gorde dute. Mende erdi geroago, Mireia Elozegi Donostiako fisikari gaztea ikerketa bat egiten dabil, bakarka baina ez berak uste duen bezain sekretuan. Zientzia eta espioitza uztartzen dituen liburu indartsu honek.

Prentsa >

Gazteentzako Matraka

Gazteek egindako eta gazteentzako gehigarri berria kaleratu du **Berriak**: eguazten eta eguenetan plazaratuko den **Matraka astekaria**

Astekari berria hasi da matraka ematen. Urriaren amaieran bataiatu zuten Berriaren sabeletik jaio den gazteentzako Matraka astekaria. Gazteei zuzendutako Berriaren proiektuak sarea izan du umetoki, eta sarea edukiko du topaleku. Izan ere, hastapenak matraka.info webgunean egin ditu astekariak, eta oraintxu salto egin du plazara; dena den, sareko zein paperezko Matrakek elkarlanean jardungo dute. Gazteen komunikazioa, sormena eta partehartzea sustatzeko

«Edozein gaztek nahi duenaz idazteko aukera izango du Matrakan»

helburuagaz Euskal Herriratu du Berriak gehigarria, eta arduradunen esanetan “*gazteek egindako eta gazteentzako topaleku*”izateko asmoagaz sortu dute. Horrela, gazteak egunkaria irakurtzera ohitzea ere erdietsi nahiko lukete.

Gazteen eguazten eta eguenak bere egin gura ditu Matrakak, eguaztenetan egunkariagaz batera banatzen da (25.000 ale) eta eguenetan unibertsitate eta lanbide heziketako hainbat ikastetxetan (30.000 ale) doan



Estitxu Elduaien, Matrakako arduraduna

eskura daiteke. Estitxu Elduaien kazetariak dauka Matraka koordinatzeko ardura, eta bere eginbeharra da alboan batzen zaizkion matrakideak (kolaboratzaileen lan-taldea) bideratzea. Ikasgune garrantzitsuenetako matrakideez inguratu da momentuz: EHU, Deustuko Unibertsitate, Mondragon Unibertsitate eta Nafarroako unibertsitateko ikasle eta irakaslez. Gazteen gaiak, kexkak, iritziak, jakinminak... asetzeko asmoa dauka Matrakak eta arduradunak aurreratu legez: “*edozein gaztek nahi duenaz idazteko aukera izango du Matrakan*”.m

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Telebista >

Martin telesaila

Martin telesailaren atal berriak eskainiko ditu ETB-1ek bariku iluntzeetan. Tentazioak eta Globomediak telesailaren 16 atal berri prestatu dituzte ETBrentzat. Jose Ramon Soroiz eta Elena Irureta buru dauzkan komediak iazko hain hiru tiro dio aurtengo denboraldian ere, baina aurpegi berriak ere izango dira, hala nola: Jose Ramon Argoitia aktore bizkaitarra. Beste berrikuntzeko bat Marta (Elena Irureta) askotan joaten den taberna batean datza. Aurreko denboraldian telesaila jarraitzen ez zutenen jakinmina asetzeko, telesaila hurrengo istorioan onairritzen da: Martin irrati bateko kazetaria da eta lanean zein etxean bizi duen kaosak eragindako pasarte komikoak dira istorioaren ardatzak. Amaitzeko, Martin telesaila barikuetan ETB-1 katean 21:55ean ikus daiteke.



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Ametzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48930 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8



**GALEA
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12
Fax: 94 491 11 31

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis × Esgintzeak ×
× Erreuma × Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

Mendieta 2, SOPELA 6 1 7 6 7



**Sarrerak
debalde!**

azaroak 11 osteguna

**LA KINKY BEAT
KEIKA**

4 sarrera

deitu!

94 491 13 37

Kafe Antzokiak
antolatutik ekitaldietarako sarrerak lortu.
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

Ordenadorean bilatu

Google-n **doako programa** berriak
PCan miaketak egitea errazten du

Google-k atzera harritu gaitu. Orain arte Google-k Interneten ia edozer aurkitzeko balio bazuen ere (webguneak, irudiak, berriak...) orain etxeko ordenadorean sartu zaigu. Baita barruraino sartu ere! *Google Desktop* dugu asmakizun berria.

Programa txiki bat baino ez da Google Desktop —minutu bakar batean Internet-

**«Google-n bilatzea bezain
erraza da ordenadorean
testu bat, irudi bat edota
abesti bat aurkitzea»**

etik 'jaitsi' daiteke—. Programa 'piztu' eta gero, honek gure ordenadorea goitik behe-
ra miatuko du daukagun guztia 'ikasteko'. Gero, gure nabigatzailea erabiliz (Internet Explorer, Firefox, Safari zein Mozilla) Google arruntan bilatzea bezain erraza da gure ordenadorean testu bat, irudi bat edota abesti bat aurkitzea. Baina, ez kezka-

tu: informazioa ez da gure ordenadoretik irteten-eta, hau da, Google-ek ez du jakin-
go guk ordenadorearen barruan zer dugun.

Orain dela zenbait hilabete Microsoft-
ek bere hurrengo sistema eragileak (Win-
dows Longhorn, 2006an argitaratuko dena) bilaketa sistema berria ekarriko zuela aditzera eman zuen. Gauza da gaur egune-
ko Windows-ek dakartzan bilaketa siste-
mak oso kaskarrak eta geldoak direla. Be-
raz, 2006 urtea arte betebeharrak hau ahalik
eta hobekien bete nahi duten beste enpre-
sek egindako hainbat programa ikusiko
ditugu. Helburua merkatu horretara
Windows baino lehen ailegatzea da. Google-rena ez da lehenengoa (bage-
neuzkan aurretik beste aukerak, baina ez
zuten Googleren moduko enpresa bote-
retsua atzetik) baina bai arrakasta edukit-
zeko aukera gehien dauzkana. Probatzea
merezi du. m

webgida

GAUR EGUNGO AEB

>[http://www.knife-
party.net/flash/barry.html](http://www.knife-party.net/flash/barry.html)

Ikaragarria. Sekulako bideo baten berri da oraingoan dakarguna. Ezin da denbora gutxiagoan gauza interesgarri gehiagorik esan. Bush eta euren alderdikideek egindako sarraskiak ondo baino hobeto azaltzen dira hemen, 3D-ko teknikak erabiliz. Ikusi beharrekoa. Hori bai, ingelesez baino ez dago.

GAZTEENTZAKO

>www.matraka.info

Gazteentzako prentsa gehigarri berria plazaratu du Berria egunkariak: Matraka. Aldi berean interneten webgunea ere ipini dute. Bertan, apunteak trukatu daitezke, ligatu, kontzertuen berri izan, jende ospetsua elkarriketatu... Den-
dena, euskara hutsean, jakina.

Sarean aurkitu ditugu >



Garbi Losada > antzerkigilea

“Antzerkian gabiltzanon sineskeriak
beldurrari izena emateko modu bat dira”



Orain dela hamar urte Koldo anaiagaz batera Ados konpainia sortu zuen Garbik

Orain aste batzuk Ados konpainiaren *El Decamerón* antzezlanak ikusteko aukera egon zen Getxon. Ados-ko kideak gipuzkoarrak dira, baina lana getxoar batek idatzi eta zuzendu du: Garbi Losadak. Losada Pedagogia ikastera joan zen Donostiara, ez zen itzuli. Pedagogia ere baztertu egin zuen, ikasketak amaitzeaz zegoela antzerkia lanbide hartu zuen-eta. Honezkero hamaika lan egin ditu aktore, idazle eta zuzendari.

—Zelan aurkeztuko zaitut? Denetarik egi-
ten duzu-eta, edo egin duzu behintzat...

—Tira, ez dut aspaldian aktore jardun.
Orain lotsa ematen dit aktorea naizela esate-
ak. Aktorea *nintzen*. Ez nuen erabaki kont-
ziente baten ondorioz utzi; zuzendari eta
gidoilari lanak suertatu zaizkit, beste barik.
Bestetik, lan horregaz identifikazio handia-
goa daukat beharbada.

—Zinean eta telebistan ere egin duzu zeo-
zer. Antzerkia gurago?

—Dena daukat gustoko, baina antzerkian

egin dut lan gehien, errazena delako. Zinea
egiteko aukera gutxiagotan ailegatzen da.

—Oso gazte hasi zinen...

—Bai, orain dela asko. Baina sekula ez nuen
pentsatzen hau lanbidea izan zitekeenik.
Pedagogiako azken ikasturtea ikasten nenbi-
lela hasi nintzen profesional, Tantakaren
sorreran parte hartuz. Hamar edo hamaika
urte eman nituen han, eta gero Koldo anaia
eta biok joan egin ginen Ados sortzeko.

Hamargarren urtea dugu hau.

—Eta zergatik sortu zenuten Ados?

—Ez ginen Tantakatik joan arazoez bultza-
tuta, beste produkzio-bide bat sortzeko
beharrak bultzatuta baizik. Baina harreman
ona daukagu eurekaz.

—Idaztea, aktore lana, zuzentzea... Zer
gurago duzu?

—Idaztea eta zuzentzea. Aktore lana jostaga-
rria begitantzen zait, baina besteak gehiago
asetzen nau. Istoriok kontatzea, hain
zuzen...

**«Emanaldietan urduri
jartzen naiz eta ezin naiz
aulkian geldirik egon»**

—Zein antzezlan zuzentzea da errazen,
norberak ala beste batek idatzitakoa?

—Norberak idatzitakoaren kasuan, badau-
kazu buruan zelan antolatu behar den esze-
na, eta alde horretatik errazagoa da. Ez
duzu aurretik irakurri behar. Baina biak
dira antzekoak.

—Estreinaldietan txarto pasatzen ei duzu...

—Eta dagoeneko estreinatu direnetan ere
bai. Ezin naz aulkian geldirik egon. Ez dut
uste ezer txarto aterako denik, edo aktoreek
txarto edingo dutenik, baina urduri jartzen
naiz. Gurago izaten dut kanpoan ibiltzea,
buelbaka, gehiegi urrundu barik hala ere.
Erridikulua egiten dut. Baina uste dut jende
askori gertatzen zaiola gauza bera.

—Antzerkiko jendeak sineskeria asko dau-
kala esaten da. Zuk ere bai?

—Ez gehiegi. Hori kolorea ez bada agertzen,
hobe, baina agertu behar bada ager dadila.
Badakizu zer den hori? Beldurrari izena ema-
teko modu bat. Zuzeneko emanaldiak oso
arriskutsuak dira, edozer atera ahal delako
txarto, eta hobe da horrek sortzen duen bel-
durra sineskerian kokatzea, existentziaren
arazo sakonengatik baino zelulitiagatik kez-
katzea hobe den bezala. m

Sintaxia lantzen

Helburuzko esaldiak, kausalak eta moduzkoak dakartzagu oraingoan. Horretarako, menperagailu eta juntagailu batzuk bildu eta adibide bana imini dugu.

Testua: Urtzi Iglesias

Helburuzkoak

–tearren
Helburuzko esaldietan, *-teagaitik* erabili beharrean, *-tearren* erabiltzen da (*-t(e)arrik* ere erabiltzen da berbeta batzuetan):

Zugaz berba eitearren etor da Martin (Getxo)
‘Zurekin berba egiteko etorri da Martin’

-ten
Zertara galderari erantzuteko balio duen *–t(z)era* atzizkia ez da erabiltzen, *-ten* erabiltzen da honen ordez:

Portaltera yoten zan bendeje saltzen (Erandio)
‘Portugaletera joaten zen bendejea saltzera’

Kausalak

Eta
Yake imiñi, hotza dao ta (Leioa)
‘Jaka ipini, hotza egiten du eta’

Ze (... eta)
Felisa! Ez yo ezebere ze nire semek zuk baño hobeto yoten dau (Getxo)
‘Felisa! Ez jo ezer, nire semeak zuk baino hobeto jotzen du eta’

Moduzkoak

-n modun (-n moduan)
Zuk esan dozun modun ein dot (Getxo)
‘Zuk esan duzun moduan egin dut’

-n lez (-n legez)
Kanpoko dalez ez daki euskere (Leioa)
‘Kanpokoa denez, ez daki euskaraz’

Esakere > “Egunak txirrist egiten dabeneko”



Gauetz gusture, lar gusture, dabillen morroiari geitzeko erabiltzen dan berbe ondo ezeune da: *Gaubxori!* Baia zelan esaten dako eguzkik lehenengo adarrak erakusten dau-zenerako altxata eta martxa beten dabillena? Ez ei deku berbarik horrerri geitzeko. Zeitik ete da hori? Ixengo ete da danok goxeti altxateko eta behingon martxan parateko zale gara? Irakurle askok iribarre egingo dozue hau entzuckeran. Nik bere bai: ni enozue erraz ikusko “egunak txirrist egiten dabeneko”.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalemiaren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gureberbakere4 8

BERBA JATOR BATZUK (X)

Berbakere 39n eta 43n gure izenondo edo adjektibo batzuk kusi genduzen, gure parajeko euskeran gauzak eta pertsonak ZELAU(K) –Zelako(ak)– direzen esateko erabiltzen direzenak. Gaur horregaz kontugez segiduko dogu apur bet. Hemen doaz, ba, beste izenondo batzuk.

Testua: **Xabi Bilbao**

huts, hutse: Beste izenondo bategaz batera erabiltzen da, aitetuten dogun pertsonak edo gauzak kualidade bat guztirik betetuten daule esateko. Ahoskere dala ta, gogon aukizue gure eskualdeko euskeran *ts* kontsonante *tz* ahoskatuten dala.

—*Danatarik eiten daki, baia sueteko gáuzatarako desastre hutze da.*
—*Botaziñok eta kanpáñek? Dana da engañu hutze!*

jakitun: Asko dakiñe.

—*Lauaxeta, Aitzol... jénte baliénte eta yakitun asko hil auden frankista madáriketuk.*

jatun: Asko jaten daune.

—*Zúon mutille ondo jatune da, bai, baia halan ta bere fin-fin dau urretxan palu lez!*

kantsagarri: Astune, aspertuten daun pertsone.

—*Akordeoiágaz ensáiaten hasten dánen órduk émoten dauz abesti batéaz: kantzagarri zer da ba!*

kakapirri: Pazentzirik eztekona.

—*Kakapírri hutze da: óndiño takilléruk heldu barik eta bera badau, diru ta dana eskun, itxédoten.*

koitedu/e (koittedu/e, koitxedu/e): Asko sufridu daun pertsone, edo beti on egiten daune, berari txar eginte bere. Pertsonan kualidadek esaten daudezen izenondok *–u* edo *–o* letrakaz akabaten badirez (*altu, defuntu, delikedu, gixajo, kurioso, listo,...*) *–e* bokala iminten dake pertsone andrazkoa bada (*alte, defunte, delikede, gixaje, kuriose, liste,...*).

—*Amama koitxede beti íbiltzen zan solon beharren eta beti dana émoteko prest.*

I

Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Eperrak

saltsan

Hegaztien artean oso jaki estimatua da eperra, ehizatze-
gatxa delako eta galeperraren aldean behintzat zer jan badue-
lako. Hasteko, ondo garbitu eperrak, irinetik pasatu, gatz-
pipertu eta oliba oliotan urreztatu. Gero *broumuse* erara (hau
da txiki-txiki) zatitu barazkiak: tipula gorria, azenaorioa,
porrua eta piper berdea. Eperra egin dugun olio berean
bigundu arte egin hau guztia. Ondoren koñak basoerdi bota
eta eperrak flanbeatu. Baso erdi ardo zuri, beste bat ardo
beltz, okela salda eta txokolate zatitxu bat gehitu eta saltsa
loditu arte su baxuan eduki. Azkenik, gogoratu normalean
ehizakiak oso ondo onartzen dituela espezieak eta horregatik
beti erramu apur bat, ezkaia (gatzelaniaz tomilloa), intxaur
muskatua... bota daitezkeela. On egin! m

osagaiak (bi laguntzatzat)
eper bi • tipula gorri bi • azenaorio bi • piper berde bat
porru bat • baso erdi koñak • baso erdi ardo zuri • baso erdi ardo beltz
txokolate zatitxo bat • gatza • pipermina



itsaso arana / jolastoki-koa

Bizkaiko

txakolina

Mendeetan zehar Bizkaia mahasti handi bat izan da.
Adibidez, Portugaleteko sortze aktan honako pribilegioa
eman zion Juan I erregeak herriari: kanpoko ontziek ezin
zuten herrian beste leku batzuetako ardorik deskargatu,
behintzat, herrian bertan egindako beste horrenbeste txakolin
ontziratzen ez bazuten.

Bizkaiko Txakolina jatorrizko izendapena Bakio eta Le-
keitioko kosta-mahastiek hartzen dute. Enkarterrietan ere
badira mahastiak, eta Balmasedan, Güeñesen, Galdamesen,
Zallan eta batzuk Urduña aldean. Bodegak, aipatu ditugun
inguru horietan daude.

Batez ere bertokoak diren mahats mota bi erabiltzen dira
txakolina egiteko: hondarrabi zuri eta hondarrabi beltza. Oso
mahats usaintsuak dira biak. *Folle blanche* mahats mota ere
onartzen du jatorri izendapen honetaz arduratzen den
Kontseiluak. Mahats-biltzea udazkenaren hasieran egiten da,
azukrea eta garraztasunaren arteko oreka egokia izaten den
momentuan.

Ardo hauei dagokienez, ezagunenak zuriak dira. Ardo
arinak dira, sikuak eta edateko oso errazak. Euren graduazioa
9,5 eta 11,5 artekoa izaten da. Badira txakolin gorriak, ez da
horrenbeste egiten eta ahoan ikutu garratz apurra izaten dute;
graduazioa zurien parekoa izaten da. Eta, azkenik, txakolin
beltzak geratzen zaizkigu, hauek ezezagunenak dira eta oso
gutxi produzitzen dira. Hauetan, bai, garraztasuna nabaria da.

Ardo honen produkzioaren parte txiki bat atzerrira
exportatzen da, beste bat Madrilen eta Bartzelonan
banatzen da, baina gehiena hementxe, Euskal Herrian
bertan, saltzen da. m

Kontxi

urdaitegia

bertako eta kalitate handiko jeneroa Algortan



Argazkian, Kontxi Zuazubiskar eta Mari Jose Elordui

Denda txiki batek izan behar duenaren
eredu da Kontxi Urdaitegia: produktu
zainduak, garbitasuna, prezio egokiak eta
bezeroari tratu paregabea.

Orain dela 23 urte etorri zen Algortara
Kontxi Zuazubiskar elgoibartarra. Errea-
leko jarraitzaile sutsua izaten jarraitzen
duen emakume honek, orain dela urte eta
erdi ireki zuen urdaitegia. Baina arrunta
baino askoz gehiago da bere denda. Kon-
txirenean iberikoak (pernilak, solomoak...),
pateak eta gaztaiak produktu izarak dira
baina, bestelako hamaika harribitxi gastro-
nomiko aurkituko ditu bezeroak han,
inguruan beste inon nekez topa daitezkee-
nak. Oso argi esan digu, jeneroa aukeratze-
an Euskal Herrikoak hobesten dituela beti,

hemengo produktuen kalitatea ikaragarri
ona dela eta gainera *“bertakoa bultzatu
behar da”*. Horrela, Kontxirenean esaterako
Lea Artibaiko kooperatiba batek egiten
dituen mermeladak daude, Nafarroako
beste batek egiten dituen barazki kremak,
Maruriko yogurtak edota Gasteizen egiten
den kefirra, Tolosako teilak, kalitatezko
kontserbak, gero eta gehiago saltzen diren
egindako jakiak (sanjakoboak, kroke-
tak...)... denetarik dago. Edatekoetan ere
eskaintza paregabea badago: txakolina,
Errioxako arduak, patxaranak.... Urrego-
rri da den-dena Kontxirenean. m

KONTXI URDAITEGIA
Alangobarri 10, Algorta
Telefonoa: 94 491 02 93

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gus-
tura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua
astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA

ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



jateko


- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina. ALGORTA 94 94 430 76



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREEA T. : 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Edukitzen dituzun gastuak gutxitu egin behar dituzula? Parranda gutxiago egin, eta ederto gutxituko zaizkizu. Amets ugari egiten dituzu gauean, baina goizean, esnatzerakoan, egunerokotasuna nagusitzen da.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zu ikusi orduko izugarrizko bekaizkeria sentitzen duen norbait bada; tentuz ibili. Ohi baino atseginago zaude aste hauetan. Zer gertatu da bada? Sekretu txiker bat al da?

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Egunerokotasun madarikatuak erre egiten du, baina egunerokotasun horri esker ezagutzen dugu geure burua. Noiztik ez dizkiozu oparitu loreak bikotekideari? Ez dela bere urtebetetzea? Horrek ez dauka garrantziirik.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Batzuetan hobe da isiltzea eta arrazoia besteei ematea, baina zuk ez dakizu ez bata, ez bestea egiten. Aterki txiki horregaz ez duzu lortuko euritik babes-
tea, eta blai eginda lortuko zara.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Sentikor zabilta azkenaldian, eta horrek arazo asko sortzen dizkizu. Lasaitu apur bat. Bidegurutze garrantzitsuan zaude; beharbada, hausnarketa sakona egin beharko zenuke.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Izerdia ateratzea gauza ederra da; zuk, ordea, ahaztu duzu dagoeneko hori zelan egiten den. Zure koadrilaren azterketa gañditzea ez da gauza erraza; zure bikotekideak pasako al du asteburu honetan?

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Aspertuta zaudela askotan esaten duzu, baina egoera hori konpontzeko ez duzu ezer egiten. Denetan azkarrena zarela sarri erakutsi duzu, baina azkarrena izateak ez du esan gura adimentsuena izatea.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Lera eroatera zoazela dendara? Elurra ez duzu izango egun askoan, eta lera sotoan geratu beharko da. Zuhaitzeko sagar uste-la nor den jakitea ez da zaila; errua aurpegi-
an ikusten zaizu, ahalegin handi barik.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Zure laguntzat dituzunak ez dira zurekin ondo portatzen ari; egizu ikerketa txiker bat. Gau osoan zehar lo seko egitea gauza ederra da; lastima zu etengabe esnatzea.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Egia da zoragarria izan behar duela, baina orriandik ez dizu jaramonik egiten. Esaiozu zerbait. Horrenbeste sufriarazten dizun lankidea lanera itzuli da, eta horregatik, kontuz ibili beharko duzu.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zure ideiak nahiko interesgarriak dira, baina haiek hobeto saltzen ikasi beharko zenuke. Begiratu asko begiratzen duzu, baina egin, gutxi egiten duzu; izan ere, etxeko beharretan ez zara asko laguntzen dutenetakoa.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Erabaki garrantzitsua hartu beharko duzu luze barik, eta hobe duzu lasai pentsatzea ezer erabaki aurretik. Noiz hasiko zara zure berba betetzen? Beti betetzen duzula? Orduan, zergatik haserretzen zaizkizu lagunak?



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Zabalpen. 2. Aditzera emanak. 3. Zuk naramazu eta haiek... Bat. 4. Bibliako lehen emakumea. Antzinako kalkulu-taula. 5. Tontor. Gela handi eta zabal. 6. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Bi ken bat. Zero. (Zah.) Zakur. 7. Merkataria. 8. Pertiako enperadorea. (Infin.) Ukitu. Iodoaren sinbolo kimikoa. 9. Kasik. Random Acces Memory. Atzizkia. 10. Erne! Inguru.

Goitik behera

1. Udal hautetsia. 2. Euskal lurraldea. Saudi Arabiako hiriburua. 3. Nafarroako herria, Larraunen. Iodoa. 4. Ofizial turkiarra. Heldu naiz. 5. Tibeteko apez budista. Hizki grekoa. Euskal alderdi politikoa. 6. Arrain mota. Aldizkari hau. 7. Urteko sasoiak. Röntgen. 8. Haiei, nuke. Letoniako hiriburua. 9. Da. Iparraldean, mese-dez. India. 10. Eguzki. Oraindik.

Soluzioak

O	N	V	A	R	A	B	A	I	V	A
N	I	G	M	R	A	M	A	I	A	I
I	R	A	I	K	U	O	I	R	Z	I
A	V	A	R	I	U	T	R	A	T	T
R	O		O		B	A	T	B	O	
O	E	R	A		N	I	G	A	I	
O	A	K	O		A	B	A	V	E	B
I		E	T	A	M	A	R	A	V	N
I	R	A	G	A	R	I	A	K	I	
E										Z

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamabi beltzune ditu.



JOSE MARI BASTETRETXEAK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Sopolako alaba da
- Gorpilen gainean ibiltzea izan du lanbide
- Euskaldun Unibertsala izendatu berri dute

> Aurrekoaren erantzuna: Jorge Oteiza

> Irabazlea: **Galder Guenaga (Getxo) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

•Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31



gure posta elektroniko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

“Academia de enseñanza Algorta”, 1955ean

Getxoko eta inguruko herrietako ehunka haurrek hartu zituzten eskolak ordaindu beharrekoa zen ikastexe gogoangarri honetan. 1940. urte aldera zabaldu zituen ateak eta orain dela hogeitaz bat itxi. Don Pablo Lopez de Uralde izan zen eskolaren buru eta horregatik “Academia Don Pablo” izenaz ere ezaguna zen ikastetxe hau. Don Pablo gizon ekintzailea ei zen eta Algortan eta Areetan ere gestoria bana zabaldu zituen.

Eskola honetan “bachiller elemental” deitzen ziren ikasketak egiten ziren: sarrera edo “ingreso” ikasturte bat eta gero batxilerrereko beste lau. Akademiak egoitza bi zituen: gaur egun Geltokiaren plazan dagoen Zuetxe dendan zegoen bata eta Zabala kalean bestea. Azken honetan gaztetxoak ikasten zuten; bestean, oster, nagusiagoak zirenak. m

Lehenengo lerroa, goian: Ramon Basarte, Jesus Mari Cámara, Pedro Baldizan, J. Landeta, Jose Julian Iturbe, Joaquin Bidarte.

Bigarren lerroa: J. Sarria, Juan Pablo Garcia Latorrea.

Hirugarren lerroa: Juan Mari Basterretxea, Txetxu Dominguez, Jesus Mari Iturbe, Javier Unibaso, Anton San Sebastian, ?, Jesus Aio.

Laugarren lerroa: Alfonso Maguregi (GB), Paco Uriá, Pedro Bergel, Juan Ignacio Zalduondo (GB), Jose Carlos Nuñez, Imanol Cajigas.

GARI > abeslaria eta musikagilea

“Athletic-zale porrokatua naiz”

Testua: **Jon Urresti** / Argazkia: **Joseba Olalde**



Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.

Aizu! Gogor hasten gara, e?... Bi hitzetan: buru gogorra.

Zein animaliaz zatoz bat? Pertonekin, pertsonak ere animaliak gara eta.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Liburu bat ez, hainbeste maite ditudan kanta batzuk baizik; adibidez, Costello, Bowie, Ruben Blades edo Lou Reed-enak. Niretzat maisuak dira.

Eta zein filman egingo zenuke protagonistaren papera?

Asteartean [urriak 12] Adolfo Aristarain argentinarraren *Roma* ikusi nuen, eta ez dakit zergatik baina pilo bat gustatu zitzaidan.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Bakarrik sentitzen naizenean edo bakarrik nagoenean, gehien etortzen zaidan irudia nire amama Krexen zenarena da.

Zure jakirik gogokoena. Dena. Ez daukat problemarik jateko.

Aitortu dezakezun bizio bat.

Athletic-zale porrokatua naiz. Eta gainera oso gustura nago Valverde egiten ari den lanarekin.

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Hainbat leku daude. Aurtengo uda, adibidez, Mallorcan pasa dut familiarekin, eta asko gustatu zait, pila bat.

Zer janzten duzu lo egiteko? Udan ezer ez eta neguan... ezer ere ez.

Ezin zaitezke bizi... Ni motorzale amorratua naiz; beraz, motor barik.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena. Ez naiz halakoa.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Ez nago orain horretarako. Prozesu askoz pertsonal batean nago. Momentu honetan kanpoko munduak ez dauka garrantzirik nire bizitzan, nire barruko munduak baizik.

Ohitura txarren bat... Asko. Bat aipatzearren, egoskorra naizela.

...Eta sineskeriaren bat. Asko baita ere: katu beltzak, zenbaki batzuk...

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa? Sexuari buruzko ametsak.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Grabazioan, nire alabari egindako kanta bat grabatzen ari nintzela Jean Marie Ecay-rekin, hor segundu batzuk egon ziren oso, oso hunkigarriak.

Zure azken erokeria. Hemen zure aurrean egotea (barreak). m

LABURREAN — Hertzainak taldean zein bakarka egin dituen diskoengatik, Euskal Herriko musikaren historian leku berezia dauka Iñaki Garitaonaindiak (Legazpi, 1963); euskal rockak azken 25 urteotan eman duen ahotsik karismatikoena ere bada. *Gari* (1997) eta *Eguzki berritan zaude* (2000) diskoak plazaratu ostean, *0-tik* hirugarren lanagaz itzuli zaigu. Gustura egin duela aitortu digu: “*Lehenengo aldiz gozatu egin dut*”, eta garai berri baten hasiera da berarentzat: “*Bizitzen ikasten ari naiz. Ikasketa gogorra izaten ari den arren, oso pozik nago. Bizitza normala eraman nahi dut*”. Izan ere, Gari gizon berria da, eta horretan zerikusi handia daukate iaz jaio zen Mikele alabatxok eta orain dela urte bi sufritzeari uzteko hartu zuen erabakiak. *0-tik* disko zuzena (Elkar), zintzoa eta dotorea da, 11 kanta dauzka euskaraz zein gaztelaniaz, eta bertan musikari gazteek parte hartu dute; hitzak, beriz, Bernardo Atxaga (“*nire aita espiritual, nire aingeru guardakoa*”), Jon Maia, Kepa Murua eta Jon Benitorenak dira. Gari, nortasun eta jarrera aldetik ere euskal rockero aparta, zerotik hasi da eta ez du amore emango. Bejondeiola!